

## DATORRENA

Klima eta planeta,  
finantza kontua? **AIORA ZABALA > 3**

## LUCIANA CADAHIA:

«Ez gara libre jaiotzen,  
libre egiten gara» **> 22**

2024ko azaroaren 23a | XVIII. urtea • 903. zenbakia  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



## PATRIARKATUA BERRARMATZEN ARI DA; SAREETATIK SUKALDERAINO

AZAROAREN 25A ATE JOKA DA, ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTAK LEHEN LERROA HARTUKO DU. FEMINISMOAK URRATS SENDOAK EGIN DITU, BAINA PATRIARKATUA EZ DAGO LO. BERRARMATZEN ARI DA ETA FEMINISMOAK NEKEZ EGINDAKO PAUSOEN LORRATZAK BORRATZEN TEMATUTA DAGO. **> 12** GETTY IMAGES



4



18



**Apatxeak borrokan ari dira Oak Flat gune sakratua salbatzeko** 04

**Erdialdeko amerikar giza eskubideak defendatzearen arriskua agerian utzi du ikerketa batek** 07

**Analisia: Patriarkatua berrarmatzen ari da** 12

**«Mugarri», mugaz gaindiko harremanak estutzeko bidea Jokai konpainiaren eskutik** 18

**Luciana Cadahia: «Ez gara libre jaiotzen, libre egiten gara»** 22

**Irrintziaren teknika landu dute Aulestin, transmisioa eten ez dadin** 27

**Juantxo Egañaren behatxulotik** 31



22



27

**SINADURAK:**

- 03 **Aiora Zabala:** Klima eta planeta, finantza kontua?
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Zalantzan jarri
- 17 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Eñaut Zeberio Berakoetxea:** Faxismoa eta haren oinarri psikologikoak
- 21 **Xabier Izaga:** Indarkeria desberdinak eta biktima desberdinagoak
- 26 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Leka egin berrien usaina
- 26 **Miren Azkarate Badiola:** Uholdeak gure burmuinetan
- 30 **Edurne Larraza Mendiluze:** Informatikari Euskaldunen Bilkura (IEB); ikasleen ekarpenak



{ koaderno } **Aiora ZABALA**

# Klima eta planeta, finantza kontua?

**Z**ortzi astetik behingo txanda hartzen duan honetan, zera ospatu nahi nuke: Erre-suma Batuan azken ikatz zentrala itxi dute urrian. Akabo negutegi efektuko gasen iturri nagusia bertan (garraioa da orain lehena, Euskal Herrian bezala). Ospatu eta hausnartzekoa.

Australiako 1912. urteko aldizkari baten arabera, zientzialariek aspalditik bazekiten munduko labeetan erretako ikatzak klima aldatzera eramango gintuela. Jatorrizko labe horietako asko Ingalaterrako iparraldean eraiki ziren XVIII. mendean. Trenbide berriak esleitu ziren ikatza garraiatzeko. Mendixkak biluztu ziren esplozazioa ahalbidetzeko. Gaur egun bertako paisaian giza-kiaren aztarna argi ikusten den arren, sorpresaz hartzen ditut iragan industrial gris horren argazkiak. Larreak, basoak, errekek... berde eta urdin dexente dagoen toki horren irudi zaharrak.

1980ko hamarkadan Erre-suma Batuko elektrizitatearen %80 ikatzarekin ekoizten zen. 2012an, %40. Gaur, zero. Zerk ahalbidetu du

eraldaketa? 2005ean hasitako karbono isurketa baime-merkatuak agian, edo 2010ean sufre dioxidoa eta nitrogeno oxidoak mugatzeko erregulazioak (ikatz zentral batzuk itxiarazi zituenak), edo 2013an karbono isurketa baimenei ezarritako prezio minimoak... Azken hamarkadan ikatz zentral asko beste erregaietara aldatu dira (gasera nagusiki, negutegi efektuko isuri intentsitate txikiagoa duena). Era berean, elektrizitatea ekoizteko iturri berriztagarrien teknologiek, eolikoek batik bat, pizgarriak eta bultzada politiko egonkorra izan dituzte.

Finantza eta erregulazioez gain, beste arrazoi garrantzitsu batzuek gidatu dute ikatz zentralen itzaltzea. Klima aldatetarekiko iritzia publikoa 2000ko hamarkadan nabarmena zen dagoeneko, eta Greenpeaceen aktibismoak 2007an egunkarietako lehen lerroa eramane zuen gaia. Hamarkada bat lehentxeago, herrialdeko ikatz ekoizpena erabat murriztua zegoen jada (klimaz bestela-

ko arrazoiengatik), eta gehiena inportatu egiten zen. Gobernuak 2008. urteaz geroztik karbono isuriak murrizteko helburu argiak ere ezarri ditu Aldaketa Klimatikoa-ren Legearekin. 2015ean helburuok estutu egin zituen. 2021ean hauek betetzeko epea aurreratu zuen, klimaren nazioarteko konferentziaren (COP26) anfitrioi izan baino hilabete batzuk lehenago. Faktore anitzek gidatu dute eraldaketa eta bakar batek ez dirudi gailena: fiskalitatea, lidergoa, nazioarteko politikak, herriaren eskaera.

COP26tik COP29ra. Egunotan ingurumenari buruzko hiru nazioarteko gailur garrantzitsu ari dira gertatzen. Bioaniztasunarena hilaren batean bukatu zen Kolonbian; Basamortuen aurrerapena ekiditekoa abenduaren hasieran izango da Saudi Arabian (COP16 da biontzat) eta klimaren COP29a bukatu berri da Azerbaijanen. Hi-

## Australiako 1912ko aldizkari baten arabera, zientzialariek bazekiten munduko labeetan erretako ikatzak klima aldaraziko zuela

ruotan, jorratzen diren gaien artean nagusia finantzena da: behar den dirua nork eman, noiz eta nola banatuko den, negutegi efektuko isuriak murrizteko, klima krisira egokitzeko, bioaniztasuna kontserbatzeko eta basamortutzea gelditzeko. Nork ordaintzen ditu kalteak, nork garatzen eta elkarbanatzen du teknologia, nork ordaintzen du lur eta ur eremuen berreskurapena eta babesa? Hori da askoren ahotan dagoena.

Suposizioa da behin dirua edukiz gero jakin badakitelaz zer egin. Suposizio handia, nire ustez. Horrenbeste arreta diruan jartzeak errealitatek urrundu gaitzake, eguneroko jardura eta erabakietatik. Nahi genukeena egiteko biritza osoa emango bagenu dirua eskatzen eta itxaroten, ez genituzke ekimen asko aurrera eramango. Ikatx zentralak itzaltzeko kostuak nork ordaindu erabakitzeko esperoan bagina, gaur ez genukeen hau ospatuko. •





**A**rizona hegoaldeko paisaian basamortua da nagusi. Phoenix hiriburua-ren ekialdera, baina, Nafarroa baino handiagoa den baso batek berebiziko garrantzia dauka eskualdeko oreka ekologikorako. Izena xelebrea du: Tonto National Forest, oraindik ere gutxiespen gisa AEBetako indigenetako figura ezagunenetako batetik hartua.

Babes federaleko eremu horretan, are esangura bereziagoa daukan txoko bat dago: Oak Flat. Meatze baten mehatxuak ingurua defendatzera eramanez du San Carloseko erreserbako apatxe herria. Oraingoz, epaileak indigenen eskaren aurka agertu izan dira, eta horregatik, Washington herrialdeko hiribururainoko martxa egin dute hainbat indigenak Auzitegi Gorenak egitasmoa gerarazteko eskatzeko.

## «OAK FLAT BABESTU»

Apatxeen borroka beren gune sakratuak txikitu nahi dituen meatzaritzaren kontra

AMERIKA / Urtzi URRUTIKOETXEA

Phoenix Arizonako hiriburua-ren ekialdera dago Tonto National Forest basoa. Eskualdeko oreka ekologikorako garrantzi handia duenez, babes federaleko eremua da, eta bere barruan dago Oak Flat, mendebaldeko apatxeen eta beste herri indigena batzuen topaleku sakratua. Orain, meatzaritza proiektu batek arriskuan jarri du.

Oak Flat Superior herriaren kanpoaldean dago kokatuta, Phoenix eta San Carlos Apache erreserbaren erdibidean. Oso aspalditik, mendebaldeko apatxeen eta beste herri indigena batzuen topaleku izan da, «beste inon egin ezin diren zeremonia sakratuetarako».

Kolono zuriek Oak Flat edo «haritz zuri» izendatu zuten le-

kua Chi'chil Biłdagoteel izenez ezagutu izan dute apatxeek askoz lehenagotik. Eskualdean libre zebiltzan apatxeak San Carlos erreserban bizitzera behartu zituzten 1870ean, apatxeen gainerako lur gehienak meatzeetan ziharduten kolonoiei utziz. Oak Flat, baina, praktika kultural eta erlijiosotarako gorde zen. Leku Histori-

koen Erregistro Nazionalen ageri da Eisenhower presidentearen garaitik.

Horri esker, meatzaritza eta kaltegarriak izan zitezkeen beste praktika batzuetatik babestuta egon zen, XX. mendearen erdialdetik saiatu izan ziren arren hainbat konpainia gunea ustiatzen. Lobby horien presioaren ondorioz, 2013an Washingtongo Kongresuraino iritsi zen gaia; baina indigenen presioak eman zuen fruiturik, eta legeak azkenean ez zuen aurrera egin.

Handik gutxira, baina, uste-kabeko xedapen bat sartu zuen John McCain senatariak defentsa-lege batean; horren arabera, Resolution Copper enpresari Oak Flat inguruan aritzea ahalbidetzen zitzaion. Meatzaritzan dihardu konpainia horrek, eta hiru kilometro zabal eta 335 metro sakoneko kraterra egin asmo du gune indigena sakratuan. Rio Tinto multinazionalak dauka Resolution Copper-en gehiengoa, eta lehen ere munduko hainbat txokotan polemika iturri izan da; besteak beste, Australiako kultur gune garrantzitsuenetako batean 46 mila urtez aterpe gisa erabilitako haitzak suntsitu zituen.

### «EMAKUME MENDIA»

Wendsler Nosie da Apache Stronghold elkarteko aurpegi ezagunena, eta bi hilabeteko martxa osorik egin duenetako bat. Oak Flat «emakumezko mendia» dela esan zuen Kongresuan. Zinaida Carroll Emakume Indigenen Baliabideen zentroko kazetariak dauka azalpena: «Chi'chil Biłdagoteel bizitza-emailea da. Haritzak sostengu dira, erreka haranetan zehar doa eta txori kantariak, azeriak, oreinak eta beste animalia ugari elikatzen dira

Apatxeak Washingtonen, Auzitegi Gorenaren aurrean egindako protesta ekitaldian.  
Urtzi URRUTIKOETXEA

bertan. Inor oroitzen ez den garaitik, apatxeek lur hauek izan dituzte bizileku, gurtu eta zaindu egin dituzte. Haien nortasuna, subiranotasuna, Nahagosan ama-lurraiekiko konexio horri eustearekin lotuta dago. Chi'chil Biłdagoteel herri indigena askoren kulturarako erdigunea da».

San Carlos eta beste hainbat eremutako apatxeek gain, zuni, hopi eta beste herri ugarik daukate eremu honekiko konexioa. Apatxe sinesmenen arabera, hemen bizi dira *ga'an* edo "mezulariak", eta «hemendik bakarrik irits daitezke otoi-tzak Usen sortzailearengana zuzenean. Lotura sakratu hori dela eta, Chi'chil Biłdagoteel zeremonia asko egin behar diren lekua da, hala nola egunsentiaren zeremonia, lur sakratuaren zeremoniak eta izerdi-aterpeko zeremonia». Era berean, apatxeek «sendabelar sakratuak, mineralak eta fauna biltzen dituzte zeremonia hauetarako».

Meatzaritzaren mehatxua iritsitakoan lekua babesteko testigantza garrantzitsuenetakoa *chiricaua* apatxe emakume batek eman zuen. Hamahiru urte zituela, Kongresuari azaldu zion Naelyn Pike-k bere egunsenti-zeremonia, neskato izatetik emakume izatera igarotzeko trantsizioa. «Nortasun indigenaren eta luraren arteko berebiziko lotura» azaldu zuen. Lehendabizi, lur horretako landareekin aitona-amonei otordua prestatu zion. Gero, lehen egunean, hainbat egun emango zituen *wikkiup* aterpea eraiki zuen, hantxe iratzarriko zen egunsentiarekin batera. «Senideekin dantza egitea. Eguzkiari, sortzaileari dantza egitea. Makilarekin lurra jo eta mendiko *ga'an*-ak iratzartzeko, berpiztea».

Hirugarren egunean, «zuriz margotutako emakumea izan nintzen. Aitabitxiak eta *ga'an*-ek *glesh*-ez (buztinez) margotu ninduten. Gure sorkuntza istorioan, emakumea zuriz margotua atera zen lurretik, lurrazaleko errauts zuriz estalita. Zuriz margotutako emakumea eta bere bizitza berri baterako sarrera irudikatzen ditu. Aurpegia guztiz estalita, amabitxiak zapi batekin xukatu zizkidan begiak. Begi horiek irekitzean, mundua ez nuen begiratu jada neskato batek bezala, emakume bihurtuta baizik».

Senideek eta lagunek zoriondu zuten, «denok negar egin genuen. Gero amonak ibaian garbitu ninduen eta kolibri berde txiki bat pasa zen. Banekien bedeinkapen handi bat zela». Pike nerabeak azaldu zuenez, «emakume bihurtu nintzen, nire aurreko apatxe neskek egin zuten eran. Nire zeremonia apatxeon bizitzaren zati bat baino ez da. Gure eskubidea da zeremonia hauek leku sakratuetan egitea. Nola egingo ditu-

**«Oak Flat gure Sinai mendia da. Apatxeen belaunaldiak gure Sortzailearekin, fedearekin eta lurraldearekin konektatzera etorri izan dira; leku sakratuena da», dio Wendsler Nosiek**

**Apache Strongholden ez dira inozoak, badakite zeinen interesak dauden Oak Flat-eko egitasmoen atzean. Horregatik erabaki zuten herrialdeko hiribururaino joatea**

gu gure zeremoniak Oak Flat suntsitzen badute?»

Vanessa Nosie harro dago alabak bizipen hori izan zuelako, baina kezkatuta ere badago: «Nire familiak zeremonia hori eman ahal izan zion, bere sustraiak han ezarri eta Oak Flat-ekin lotzeko. Ama bezala, jakinik zeremonia horrek bere bizi osorako bidea markatzen duela, nire kezka zera da; hura suntsitzen bada, zer gertatuko da nire alabarekin? Guk sinesten dugu zeremonia horretan. Bizitzan hondamendia ekarriko dio? Berak eta bere alabek haurrak dituz-

tenean, eraman ahalko dituzte haurrok Oak Flate-eraino, bertan errotu daitezten?»


WASHINGTONERA

Hamar urte baino gehiagoko borroka horretan azken urratsetako bat Estatu Batuak hego-mendebaldetik ipar-mendebaldera zeharkatu dituen martxa izan da. Uztailean hasita, AEBetako indigenen gune garrantzitsuetatik igaro dira, bertako sinesmen tradizionalen praktikak partekatuz eta ama-lurraiekiko lotura adieraziz; besteak beste, *paiute* eta *shoshoneen* herrian dagoen Peehee Mu'huh (Thacker Pass) izeneko gunearen litio-meatzearen aurka protesta egin dute. Ekialdera egin ahala, beste geltoki garrantzitsu bat Alabamako Montgomery hiriburu izan zen. Praktika erlijiosoa eta eskubide zibilen aldeko borroka oso lotuta egon dira historikoki Estatu Batuetan, eta Martin Luther King-en ibilbidea da horren adibide argiena. Hala, Luther King apaiz zeukan Montgomeryko Dexter etorbideko eliza baptista eskubide zibilen mugimenduaren sorleku garrantzitsuenetakozat hartu ohi da.

«Oak Flat gure Sinai mendia da. Apatxeen belaunaldiak gure Sortzailearekin, gure fedearekin eta gure lurraldearekin konektatzera etorri izan dira; leku sakratuena da», dio Wendsler Nosiek. Goreneko epaileek Oak Flat babesteko itxaropena adierazi dute, AEBetako oinarriko eskubideetako bat izan ohi baita erlijio-askatasuna. «Otoitz egiten dugu epaileek berma dezaten gure gurtza-lekua, ez dadin desberdin tratatu ez dituelako lau horma eta kanpandorre bat».

2021ean hasi zuten auzibideak kolpe gogorra jaso zuen

Meatzaritza proiektu batek arriskuan jar dezake Oak Flat eremu sakratua.  
Robin SILVER PHOTO







aurten, bederatzigarren zirkuituko epaileek ontzat eman zutelako meatze-enpresari egindako lur esleipena. Doi-doiegin zuen aurrera ebazpenak, sei juk alde eta bostek aurka bozkatu baitzuten. Apache Strongholden argudioa zen erlijio-askatasuna babesten duen neurri federalak jarraitu beharko lirakeela, eta meatze-ustiapena galarazi. Goragoko epaileek ebazpena

berrikusteari uko egin ziotenez, Washingtongo Auzitegi Goreneraino iritsi dira apatxeak eta haien aldean jarritako beste hainbat lagun, "Apache Stronghold v. United States" kasua ontzat har dezan eta multinazionalari Oak Flat-en suntsipena galaraz diezaion. Urrian esan ohi ditu Auzitegi Gorenak zein kasu hartzen dituen aintzat, horien ebazpena jakiteko hilabe-

te gehiago behar badira ere. Gaur-gaurkoz, hiru epaile progresistak eta sei kontserbadorek osatzen dute AEBetako Gorena, baina azken horietako batek, Neil Gorsuchek, jatorrizko herrien eskaera eta salaketan aurrean elkartasunezko jarrera izan du.

Apache Strongholden ez dira inozoak, badakite nor duten aurrean eta zeinen interesak dauden Oak Flat-eko

egitasmoen atzean. Horregatik erabaki zuten herrialdeko hiribururaino eta bere boteregune indartsuenetakoraino eramatea protesta. «Kapitoliora iritsi eta bandera ikusi genuen, hainbeste jenderi eta lurri hainbesteko mina eragin dion ikurra», jakinarazi zuen elkarteak. «Sufrimenduaren historia horrek gogora dakar kigu herrialde honen sorreraren egia, sistema kapitalista

eta kolonial maltzur honekin, baina gogorarazten digu, halaber, nor garen eta zein lotura daukagun bai ama-lurrarekin bai batak bestearekin». Hala, apatxe buruzagiak azpimarratu zuenez, «ez dute irabazi. Ez naute ezabatu. Hemen gaude oraindik gure jendea, ama-lurraren eta giza existentziaren alde egiteko txikizioaren aurrean».

AEBetako ibilbidean, antzinako praktikak eta erlijio indigenak lantzeaz gain, mezu eraldatzailea zeukaten bestelako elizekin ere bat egin dute. «Bada ordua erlijio eta konexio espiritual guztietako jendea jaiki dadin ama-lurra eta etorkizuneko belaunaldiak babesteko», diote apatxeek. «El Salvadorako Oscar Romero artzapezpikuak esan ohi zuenez, krisirik sortzen ez duen eliza, aztoratzen ez duen ebanjelioa, gizarte horretako egiazko bekatua aipatzen ez duen Jainkoaren hitza, zein ebanjelio mota da? Luzaroan inperioak elizak eta erlijioa erabili dituzten txikitu eta gu guztion gizatasuna ukatzeko».

Oak Flat eremua herri askotako indigenen jomuga izan da mendetan. Haraino bidaia izan dute zeremonietan parte-hartzeko, otoitz berezi-tarako, sendabelarrak eta bestelako elementu batzuk biltzeko. Espiritualtasun horren barruan, hildakoekin dugun konexioa eta norbanakoen garbiketa-sendaketa pertsonala bilatzeko txokoa izan da. Indigena zein ez, aisialdirako eta ekologikoki gune garrantzitsu gisa ere erabili ohi da gaur egun, kanpinean joateko, mendian txangoak egitera zein eskalada praktikatzera, adibidez. Eta horrez gain, Arizonako hegaztien behatoki garrantzitsuetakoa ere bada.

Goian, Washingtongo protestak. Behean, apatxeen zeremonia sakratuen bi irudi.  
Urtzi URRUTIKOETXEA - Robin SILVER PHOTO

# ERASOEN AURKA, SAREA

## Giza eskubideen 200 defendatzaile hil dituzte 10 urtean Erdialdeko Amerikan

**E**giturazko zapalketen herentzia kolonial bati egotzi dizkio beren aurka egin dituzten krimenak IM-Defensoras Erdialdeko Amerikako Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Ekimenak. «Hamarkada pasatxoan 200 defendatzaile hil dituzte, baina beste 228 hiltzen saiatu dira», salatu zuen Lidya Alpizar aktibista mexikarrak 119 orrialdeko txostenaren aurkezpenean, Tegucigalpan.

«Mintzen gaituzten datuak, salbatzen gaituzten sareak. Hamar urte baino gehiagoko erasoak» azterlanean 2012tik aitzinerako datuak jaso dituzte, urte horretan eratu baitzen sarea. 2023ra bitartean 8.926 defendatzaileen eta 953 antolakunderen aurkako 35.077 eraso dokumentatu dituzte bost herrialdeetan.

Horietako bat da Berta Caceres ingurumenaren aldeko Hondurasko indigenaren hilketa, 2016an gertatua. Sareak azaldu zenez, krimen horren ondotik, «megaproiektuei aurre eginez lurraldea defendatzen duten pertsonen aurkako erasoak ugaritu egin ziren».

### ERASOEN %45 ESTATUEKIN LOTUTA

Estatuekin lotutako eragileek egin zituzten erasoaren %45; polizia, militarrek eta udalderrietako eta eskualdeetako agintariek, kasu.

Bertze %5,3 enpresa estraktibistekin edo meatzariekin erlazionatuta daude. «Desprestigiatze kanpainak, mehatxuak eta indarkeria psikologikoa eta ahozkoa» erabili zituzten, baita «kriminalizazioa» ere.

Aktibistek nabarmendu zuten, sarea osatzeak 8.000 emakume inguru babestea ahalbidetu du. Hamarkada ho-

📁 **JENDARTEA** / Mainer IANTZI GOIENETXE

Giza eskubideen 200 defendatzaile hil zituzten Mexiko, El Salvador, Guatemala, Nikaragua eta Hondurasen 2012 eta 2023 bitartean, IM-Defensoras aktibista sareak berriki plazaratutako txosten baten arabera. «Mintzen gaituzten datuak, salbatzen gaituzten sareak» izena duen azterlanak, datuak ez ezik, analisiak ere biltzen ditu.

netan mehatxuak jaso dituzte pertsona horiek bost herrialdeetan, eta «behartutako lekualdatzeen edo asilo politikoaren bidez» lortu dute sarri babes hori.

Garatu duten erregistro sistemak defendatzaileen eta antolakundearen aurkako erasoak dokumentatu eta zenbatzen ditu. Eraso horiek fisikoak, emozionalak, espiritualak eta psikologikoak izan daitezke, zuzenekoak ala zeharkakoak.

«Sistema aitzindaria da munduan, eta aberatsa; Babes Integral Feministaren gainontzeko estrategiekin elkarlanean, defendatzaileak babesten laguntzen duelako, norbanako zein kolektiboek bizi ditzaketen biolentziak eta errealitate zehatzak identifikatu», baloratu zuten.

Txostenak zerbakiak jasotzen ditu, erregistroaz eta dokumentazioaz arduratzen diren hamaika kidek jasok,

lurraldearekin hurbiltasunezko eta konpromisozko lotura mantenduz. Horrez gain, analisiak eta gogoetak biltzen ditu, kolektiboki eraikiak.

### SUBJKTU POLITIKO GISA


«Giza eskubideen defendatzaileak hainbat lurraldetan antolatzen gara mehatxatzen gaituzten indarkeriei aurre egin eta bizitza eta ongizate kolektibo zaintzeko, baita esperantza eta bizi duin baterako alternatibak eraikitzeko ere. Subjektu politiko gisa existitzeak soilik buru egiten die emakumeen eta sexu-genero disidentzien boterea isildu nahi dutenei. Defendatzen dugun mundua inposatu nahi digutenaren kontrako da guztiz. Hortaz, gure lanak kolokan jartzen ditu boteredunen interesak», diote txostenean.

Argi dute Erdialdeko Amerikan bizi duten eredu ekono-

Hondurasko Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionalako kideak, iragan urrian, lurraren defendatzaileen aurkako epaia behin betiko artxibatu ondotik.  
PROTECCIÓN INTEGRAL FEMINISTA







miko, politiko eta kulturala herentzia kolonial batetik datorrela eta egiturazko zapalkuntza eta indarkeria patriarkal, kapitalista eta arrazistak dakartzala emakumeen gorputz eta lurraldeetara. «Eredu honek eragindako krisi globalaren testuinguruan, desberdintasun ekonomikoak, indarkeria, pobrezia eta klima larrialdiaren inpaktuak handitzen doaz gure eskualdean».

#### **AUTORITARISMOA, GORA**

Bakoitza bere berezitasunekin, El Salvador, Guatemala, Honduras, Mexiko eta Nikaragua autoritarismoaren eta ustelkeriaren gorakadaren testigu dira. Parte-hartze sozial eta politikorako espazioak itxi dituzte, eta militarizazioa, estraktibismoa, krimen antolatuen, feminizidioak eta emakumeen eta sexu-genero disidentzien aurkako bertze indarkeriak hazi dira. Migratzaileen dramak, gainera, ez du aurrekaririk. Alderdi progresistek boterea es-

kuratu duten herrialdeetan ere ez dira egiturazko indarkeria eta desberdinkeriak gaitzetzeko gai izan, IM-Defensoras sarea ziurtatu duenez.

«Heriotza-eredu honetatik onura lortzen duten botereentzat errepresioa eta indarkeria dira gure botere kolektiboari eusteko modu bakarra».

#### **SINDEMIA, INFLEXIO PUNTU**

Txostenean ageri diren grafikoek Erdialdeko Amerikako defendatzaileek jasandako erasoaren gorakada islatzen dute, bereziki Covid-19-aren garaian: 2013an 540 eraso izan ziren; 2016an 1.462; 2019an 2.397; 2020an 4.745; 2021ean jo zuten goia 6.943ekin eta 2023an 6.214 izan ziren.

«2020 eta 2021eko eraso anitz osasun larrialdian ezarri zituzten kontrol sozialeko neurri autoritarioekin lotuta daude zuzenean edo zeharka, maila ezberdinetan: nazionalak, federalak, estatukoak, departamentukoak, udalerrikoak

edo tokikoak. Gaur, sindemiak iraganeko gai bat dirudi, baina estatuek ez dute atzera egin mobilizazioak kontrolatu eta murrizteko neurrietan. Kontrakoa: sindemian oinarriak jarri zituzten kontrol estrategiak ezartzeko. Orain arte mantendu dituzte, eta normaltasun berri gisa egonkortu dira», gaitzetsi dute.

2020 eta 2022 artean erregistratutako defendatzaileen 58 hilketetatik %40 transen aurkakoak izan ziren. 23 transfeminizidio izan ziren, torturaz eta ankerkeriaz eginak.

#### **EGIA, JUSTIZIA ETA ERREPARAZIOA**

6.629 eraso egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatzeagatik gertatu ziren. 2020tik, gorakada «etengabe eta kezgarri» bat sumatu dute. Diotenez, gobernuen eta krimen antolatuen praktikek sortutako indarkeria sozialaren handitzearen isla dira erasoak. Horien aitzinean, emakumeek justizia bilatzeko eta familia, lagun eta

**Irudian, Fatima Martinez lurraldearen defendatzailea babesten, auzitara eramana izan delako, Olanchiton, Hondurasen. Alboko orrialdean, herritar bat, Guatemalako Chiquimulan, baratzea zaintzen.**  
HONDURASEKO GIZA ESKUBIDEEN SAREA - Gonzalo HOHR / EUROPA PRESS

biktimak akonpainatzeko ardua hartzen dute.

Mexikoko “bilatzaileen” aurkako erasoak nabarmendu dituzte. Apirileko Amak Nikaraguako elkarrearen kontrakoak eta Guatemalako Virgen de la Asuncion Etxeko hondamendian hildako neskatuen familiei egindakoak ere bai. Denak dira estatuko eta estatuz kanpoko aktore boteretsuei aurrez aurre begiratzen dieten subjektu politikoak.

Bertze 4.504 eraso lurra, lurraldea eta naturako ondasun amankomunak defendatzen zituzten pertsonak jasan zituzten. Bereziki emakumeak, komunitate indigenak eta afrikarren ondorengoak dira, estraktibismoaren eta esplotazio kapitalistaren aurka borrokatzen direnak. Txosten honetan aztertutako garaian, hiru unetan egin zuten gora eraso horiek: 2017an, Berta Caceresen hilketaren ondotik; 2020an, Covid-19aren testuinguruan; eta 2022an, bereziki Hondurasen, estigmatizazioaren eta kriminalizazioaren bidez, komunitate indigenak beren lurretatik bortizki erauziz.

#### **ADIERAZPEN ASKATASUNA**

4.062 eraso adierazpen askatasuna defendatzeagatik gertatu ziren. Mexikon, hedabideen oligopolioari aurre egiteagatik, baita agintarien eta krimen antolatuen arteko konplizitateari ere. El Salvadorren, 2019an Nayib Bukele presidente izendatu zutenetik, berarekin kritikoa den kazetaritza zelatatu eta kriminalizatu dute. Nikaraguan ere klandestinitatean edo deserrian lan egitera behartuak daude gobernuarekin bat egiten ez duten kazetariak. Guatemalan, gero eta segurtasun gutxiagorekin ari dira komunikatzaile-



leak, zentsuraren eta zigor penalen mehatxupear.

3.000 eraso emakumeentzat biolentziarik gabeko bizitzak defendatzeagatik gertatu ziren. Erasotzaileei nahiz horiek babesten saiatzen diren estatuko eta estatuz kanpoko aktoreei egiten diete aurre.

2.614 eraso emakumeen parte-hartze politiko eta komunikatarioaren alde egiten duten pertsonak jasan zituzten. Gehienak Nikaraguan dokumentatu dituzte. Bertan, 2018tik gobernu totalitario bat egonkortu da.

540 eraso sexu eta ugalketa eskubideak zaintzeagatik gertatu ziren. Herrialde guztietan, ideologia ezberdinetako alderdiek emakume, nerabe eta haurren eskubideak zapaltzen dituzten politikak bultzatu dituzte «familiaren balioak» babestearen aitzakian.

#### ERASOEN INPAKTUAK

2020 eta 2022 bitartean jasotako datuek erasoek defendatzaileen bizitza eta lanetan izandako inpaktua ere erakusten dute. «Eragina handiagoa da sistematikoki erasotzen gaituztenean».

Norbanakoek jasandako erasoak %59,5 eta kolektiboek sufritutako %32,7 oinarritzko eskubideentzat muga izan ziren, bertzeak bertze, adierazpen askatasuna, biltzeko eta mobilizatzeko aukera, parte-hartze politikoa, hezkuntza eta osasuna izateko.

Eraso pertsonalen %12,6k eta kolektiboek %36,8k inpaktu fisikoak eragin zituzten, estatuko agintariek eta aktore parastatalek indarkeria erabili zutelako mobilizazio sozialak ekidin nahian.

Eraso pertsonalen %26 eta ekintza kolektiboek jasandako erasoak %8,2k eguneroko bizi-

tzan arriskuak eta aldaketak ekarri zituzten erasandako emakumearen inguruko pertsonentzat. 466 kasu pertsonaletan eta 377 kolektibotan lekualdatzeak eragin dituzte, bai herri barnean bai herritik kanpora eginak.

Legea eta kontrol fiskal eta administratiboa erabiliz, erakundeei finantza baliabideak lapurtu dizkiete (%10,2), pertsona juridikoak behin-behinean ala betiko bertan behera utzi (%12,9), eta antolakundeak behin-behinean ala betiko itxi (%45,2).

#### ONDORIOAK

Hamarkada pasatxoan jasotako datu hauek guztiek erakusten dute Erdialdeko Amerikako giza eskubideen zaindariak sistematikoki erasotzen dituztela isildu eta ahuldu nahian, izua zabalduz. IM-Defensoras sarearen ustez, indarkeria hori porrot egindako estatuen ondorio izatetik

### Defendatzaileek beren ekarpenen aitortza eta legitimazioa eskatzen dute, baita estatuen konpromisoa ere, interes pribatuen mesedetan beraiek erasotzeari utz diezaioten

### Nazioarteko mekanismo indartsuak ere galdegiten dituzte, erantzuteko gai izanen direnak, giza eskubideen arloan estatuek beren betebeharrak betetzen ez dituzten kasuetan

urrun dago, eta egiturazko zapalkuntza historikoekin du harremana. «Justizia sistema zein segurtasun indar publikoak beren zerbitzura dituzte kapitalismo arrazista eta patriarkala zutik mantentzeko».

Eraso ereduak aztertuz, indarkeria gora doala ikusi dute, eta Covid-19aren sindemiatik abiatuta kontrol estrategiak egonkortzeko oinarriak jarri direla ere baieztatu dute. Era berean, generoaren eraikuntza soziala erasoaren forma eta edu-

kietan nola adierazten den ere frogatu dute: «Eskualdean giza eskubideak defendatzen ditugun emakume eta sexu-genero disidenteok bizi ditugun desprestigiatze kanpaina, kriminalizazio eta eraso fisiko, psikologiko eta sexualetan».

#### BABES FEMINISTA OSOA

Eraso horiek guztiak jasaten badituzte ere, «biziaren alde eta esperantza eraikitzen» jarraitzen dute Erdialdeko Amerikako giza eskubideen defendatzaileek. 13 urtetik gora dira Babes Feminista Osoa (Proteccion Integral Feminista) bultzatzen ari direla.

Lurralde, jendarte eta identitateen aldeko mugimenduek elkar zaintzeko ituna da, eragiten dieten indarkeriei elkarrekin aurre egiteko; sare nazionalekin, eskualdeko aliantza batekin eta segurtasuna, zaintza eta osatzea sustatzeko estrategia ugarirekin.





**Saioa AGINAKO LAMARAIN**  
Psikoterapeuta

## Zalantzan jarri

**G**ure bizitzan zehar, munduaren eraikuntza mental bat egiten dugu, gure existentziari zentzua eman ahal izateko. Sinesmenek munduarekin elkarreragiteko esparru gisa funtzionatzen dute. Prozesu hori haurtzarotik garatzen ari da pixkanaka. Nagusiki, familiarekiko eta berdinen taldearekiko harremanaren bidez eratzen da, eta haien sinesmen asko hartzen ditugu.

Sinesmenak pentsamenduen jarraitibideak zehazten eta erregulatzen dituzten usteak dira. Munduari, etorkizunari eta geure buruari buruz ditugun ideiak dira, eta suposizioak eta aurreiritziak sortzen dituzte, zenbaitetan sentitzeko eta pentsatzeko modua zehazten dutenak, jarrera eta erabakiak hartzeko prozesuak baldintzatuz.

Bizitzako bidaian zurekin doazen sinesmen askok ez dute islarik errealtitatean. Bestalde, gauza bitxia da bizitzako bidaian gurekin dauden ideia oker eta kaltegarri horietako askok gure gogamenean irautea, baliagarriak ez direla jakin arren. Hori, funtsean, sinesmen mugatzaileak integratzeko sakontasunari zor zaio. Gure estratu psikologikoen sakonean kokatzen diren haziak dira. Gainera, dimentsio horiek beldurren eskutik doaz eta, beraz, arrazoiaren edo logikaren aurrean lerratzen dira. Hala ere, konpromiso eta estrategia egokituekin desaktibatu ahal izango ditugu.

**Denok ditugu sineste mugatzaileak, gutako bakoitzak gure giza ahalmena estutzen duen pentsamendu bat baino gehiago fabrikatzen dugu egunero.** Baina gure gogamenean agertzea ez da arazo bat, gure buruarentzat erabat desitxuratuak eta negatiboak diren ideiei balioa eta

egiazkotasuna ematen diegunean iristen da erronka. Imajinatu erabaki garrantzitsu bat hartzeaz gaudela, adibidez, lanez aldatzea. Emozioa sentitzen dugu, baina, lehenengo pausoa ematean, barne-ahots txiki batek esaten digu: «Ez duzu lortuko, ez zara behar bezain ona». Bat-batean, emozio hori zalantza bihurtzen da, eta, konturatu gabe, konbentzitzen gara hobe dela ez saiatzea.


Sinesmen bat gure gogamenean ezartzen denean, egia absolutu eta ukazintzat hartzen dugu. Izan ere, inkontzienteki, frogatzen duen ebidentzia bilatzen dugu. Horregatik da sinesmenak aldatzea hain zaila. Sinesmenak ez daude hor kasualitatez, bizitzan zehar izan ditugun ikasketen ondorio izan dira; horregatik, iraganeko egoera askotan baliozkoak izan zaizkigu. Hala ere, etengabeko aldaketaz eta azelerazioz blai bizi garen egungo munduan, lehenago positiboa izan zen sinesmen bat oztopo edo sinesmen mugatzaile bihurtu daiteke. Horrelako pentsamenduek gure

ekintzak mugatuko dituzte, askotan modu inkontzientean eta automatikoan sortuz, eta, beraz, kontrolaezina izango dira.

Beharrezkoa litzateke jakitea zeintzuk diren mugatzen gaituzten sinesmenak, haien unea eta inguruabarrak behatuz. Gerta dakigukeen zailtasunik handiena sineste mugatzaile baten eraginpean gaudela ez jabetzea da; izan ere, esan dugun bezala, horietako asko automatikoak eta inkontzienteak dira. Horregatik, agian profesional bat behar dugu, zaila egiten bazaigu lagunduko diguna.


Bestalde, garrantzitsua da jakitea sinesmenak ahaldundutzaileak edo mugatzaileak izan daitezkeela. Gure potentzian ez dira denak bitarteko; horregatik da garrantzitsua, noizean behin, hain errotuta dagoen barne-sistema hori berrikustea. Hau da, zure sinesmen mugatzaileak nola aldatu ulertzeko, nahikoa da bi hitz hauek gogoratzea: zalantzan jarri. •

saioaaginako@gmail.com



Sinesmenak ahaldundutzaileak edo mugatzaileak izan daitezke. BeritK | GETTY





**GAUR8** *ireki gure leihoa*

{ analisia } **Amagoia MUJIKÁ TELLERÍA** Kazetaria

# Patriarkatua berrarmatzen ari da

**E**makumeak gezurtiak dira, indarkeriak ez du generorik, neskek mutilek baino eskubide gehiago dituzte, legeak emakumeen alde daude eta gizonen kontra... leize-zulo matxistenetatik datozen psikofoniek burrunba dezentekoa sortzen dute sare sozialetan. Eta aise, aiseegi, iristen dira sareek modelatu dituzten belaunaldi gazteetara.

Carmen Ruiz Repullo soziologiako doktorea da. 25 urtetik

Patriarkatua berrarmatzen ari da. Algoritmora kateatuta daude feminismoaren urratsak zalantzak jartzen dituzten mezuak. Leize-zulo matxistenetatik datozen psikofoniek burrunba sortzen dute manosferan.

gora daramatza nerabe eta gazteekin lanean, indarkeria matxistaren prebentzioan, formakuntzan eta ondorioetan. «Datuak kezagarriak dira. Horrek ez du esan nahi nerabezaroa inoiz baino okerrago dagoenik. Ni nerabeen defendatzaile sutsua naiz. Benetan merezi duten nerabe eta gazteak ditugu, baina, era berean, 'berrarmatze' arriskutsu bat ari da gertatzen patriarkatuaren aldetik eta garrantzitsua da hori detektatu ahal izateko gaitasun kritikoa lantzea», nabarmendu du.

Ruiz Repulloren ustez, hiru norabidetan egin behar da indarra: sare sozialen erabilerari buruzko mitoak deseraikitzen, bikote harremanetan aurrerapausoak ematen eta sexu heziketa on baten alde egiten.

«Askotan entzuten da; 'Errua sareena da'. Tira, nik sare sozial guztiak dauzkat eta pertsona ona naiz», egin du gogoeta soziologoak.

Harremanak izateko modu osasuntsuak sustatzea, tratu onen kultura zabaltzea, gako garrantzitsua da. «Jeloskortasunean eta jabetzan hezi gaituzte, maitasun erromantikoaren mito guztietan. Nik uste nuen hau guztia gaindituta zegoela, nerabeek eta gazteek garbi zeukatelako bikote-kideak ez dizula mugikorra kontrolatu behar, ez dizula xantaia egin behar sexu harremanak izateko, ez duela esan behar 'jeloskortasuna maita-





sun-erakustaldi' bat dela... baina konturatzen ari gara kontu hauen guztien berrarmatze bat gertatzen ari dela. Eta honek guztiak lotura zuzena dauka ikusten ditugun telesailekin eta plataforma jakinekin».

Horren adibide da Wattpad plataforma, ustez "literarioak" diren testuak partekatzekeo gune bat. Parte hartzen duten asko nerabeak eta gazteak dira. Plataforma horretan bortxaketaren kultura nola ematen den ikertzen ari da Carmen Ruiz Repullo.

«Bortxaketaren erromantizazio ikaragarria gertatzen da bertan. 'Nire bortxatzaile sexya', 'Nire aitaorde bortxatzailea', 'Nire bortxatzaile maitea' motako testuak topa daitezke bertan, 200 orrialdetik gorako errelatoak, bortxaketa erromantizatu egiten dutenak», azaldu du.

Eta, hirugarrenik, sexu heziketa on baten alde egitearen garrantzia nabarmendu du adituak. «Pornografia debekatzea ez da bidea; ez badugu sexualitatean hezten, zaila da hau guztia aldatzea». Erronka horiek guztiek helburu bakarra daukate: edozein indarkeria matxistatetik libre dagoen bizitza bat bizitzea.

## Erreakzio patriarkala

Alcasserko kasutik gaurdaino, «gauza horiek gertatu egiten dira» mezutik «niri



Alboko orrialdean, Carmen Ruiz Repullo, soziologian doktorea. Lerro hauen gainean, emakume gazte bat egoera estuan. Gorka RUBIO | FOKU eta GETTY IMAGES

ere gertatu zait» esatera pasatu da jendartea. Indarkeria matxistaren identifikazioa gertatu da. «Horri esker, sufritzen ari diren indarkeria identifikatzen dute emakumeek, eta kasu askotan isiltasuna hautsi eta kontatu egiten dute. Eta isiltasuna hausten denean, erasotzailearen inpunitatearekin amaitzen da», esan du Ruiz Repullo.

Eta honaino iritsita, galde-ara arantzatsua pizten da. «Askotan galdetzen didate; salatu egin behar da? Nik beti esaten dut baliabide guztiak biktimaren eskura jarri behar direla. Eta, horrez gain, emakume horren balorazio bat egin behar da. Emakume guztiak ez daude prest salaketa prozesu baterako. Nire doktore tesian indarkeria matxista burutu zuten adin txikiko mutikoak eta indarkeria hori sufritu zuten adin txikiko

neskatoak elkarrizketatu nituen. Aurrean izan nuen sei suizidio saiakera egin zituen hamalau urteko neskato bat. Bistan denez, neskato hori ezin duzu salaketa prozesu batean sartu, arrisku bizian jartzen ari zarelako. Oso ondo jakin behar dugu zein den salaketa-prozesu bat hasteko unea. Garrantzitsuena kontzientzia hartzea eta horri buruz hitz egitea da».

Jendartean, beraz, indarkeria identifikatzeko pausoak eman dira eta neskato asko kontzientzia hartzen ari dira. Parean, erreakzio patriarkal gogorra altxatzen ari da.

Manosfera da erreakzio horren estadio nagusienetakoa. Feminismoarekin haserre dauden gizonezkoek elkar topatzen duten sareko espazioa da manosfera. Bertako kontaketa araberak, feministak etsaiak dira eta aurre egin behar zaie.

Gezuraren gainean bada ere, nahasmena sortzeak mesede egiten dio patriarkatuaren berrarmatzeari. Hartara, zalantza sortzen saiatzen da, zalantza dagoen bitartean ez dagoelako posizionamendu kritikorik.

## Hanburgesak eta paella

«Nik horiei 'hanburgesa diskurtsoa' deitzen diet. 'Ez pentsatu, tragatu, hau da dagoena, ez hausnartu, emakumeak gaiztoak dira, indarkeriak ez dauka generorik eta eskubide gehienak emakumezkoek dituzte'. Arazoa da neska-mutiko nerabe eta gaztetxo asko diskurtso horiek tragatzen ari direla. Hanburgesa-diskurtso horiek ez daukate argudiorik. Politika feministetatik, horiei aurre egiteko argudio asko eta indartsuak ditugu, baina gu-

reak 'paella argumentuak' dira, askoz mantsoagoak eta pedagogikoak. Erronka da pedagogia feminista hori sare sozialetara eramatea; bideo motzekin, memeekin, stikerrekin, Tik Tok-eko bideoekin... Eta hori jende gazteak egin behar du, bere habitata delako. Beharrezkoa da jende gazte horrengana iritsi eta haiek izatea 'beren lengoia propioarekin' 'paella argumentuak' sortzen dituztenak, 'hanburgesa diskurtsoei' aurre egiteko», nabarmendu du Carmen Ruiz Repullok.

Egungo errealitateak erakusten du manosferak itzal handia duela. «Gizonen eskubideen aldeko mugimendu bat dago, Estatuan eragin handia duena. Badakizue tratu txarrak jasan dituzten gizonen fundazio bat dagoela? Eta badira agentziak, enpresa aholkulariak, feminismoaren aurrean gizonak defendatzen lan egiten dutenak. Duela zazpi urte hau gertatuko zela esan izan balidate, ezetz esango nuke. Baina gertatu egin da eta oso adi egon behar gara diskurtso horiekin», ohartarazi du Ruiz Repullok.

Zientifikoki frogatuta dago diskurtso horiek eragina dutela jende gaztearengan. 2023ko datuen arabera, 16-25 urte bitarteko gazteen artean lautik batek uste du genero indarkeria ez dela existitzen, asmake-

ria ideologiko bat dela eta, berraz, ez dela horren kontra egin behar. 16-25 urte bitarteko gazteen artean, gizonen %51k eta emakumeen %27k uste dute berdintasunaren alorrean hain urrun iritsi garela, non orain diskriminatuak gizonenak diren.

«Hau guztia ez da egia, baina 'hanburgesa diskurtsoak' oso urrutira iristen dira eta arriskutsuak dira».

### Indarkeria eta adin txikikoak

Estatuko Fiskaltzaren txostenak jaso duenez, 2023an %45 handitu da hamalau urte baino gutxiago dituzten gazteen artean indarkeria sexuala, jazarpena, ziberjazarpena eta indarkeria matxista delituak egin dituztenen kopurua. Honetan eragin handia daukate eztabaida negazionistek.

«Salaketak ugaritzen ari dira. Horrek ez du esan nahi erasoak ugaritzen ari direnik, baizik eta sentsibilizazio kanpainak, kontzientziazio lanak eta martxan jarri diren baliabideek balio dutela neskatoak seguruago senti daitezen salaketa jartzeko orduan», egin du nabardura Ruiz Repullok. Salaketa horiek benetan gertatzen denaren %11 baino ez dute jasotzen.

«Askotan pentsatzen dugu gertatzen diren erasoak talde erasoak direla, komunikabi-



Datuek esaten dutenez, erasotzaileen eta erasoak jasan dutenen adin tartea jaisten ari da azken urteotan. Ziberdelituek ere gora egin dute adin txikikoaren artean. GETTY IMAGES

deetan gehien agertzen direnak horiek direlako, baina gertatzen diren erasoetan taldekoak ez dira %4ra iristen. Gustatuko litzaidake hedabideetan fokua ez jartzea hainbeste 'ezohiko' horietan, besteak normalizatu egiten dituelako neurri batean».

Datuek esaten dutena kezkatzekoa da: erasotzaileen adin tartea asko jaitsi da. «Valentziako erietxeak lantalde zehatz bat dauka eraso sexualak artatzeko. Oso kezkatuta daude, lanean daramatzaten urteotan ikusten ari baitira ospitalera iristen diren neskatuen adina asko jaisten ari dela. Gaur, batez besteko adina 13 urte da. Erabat harrituta daude, eta larrituta. Ez daude prestatuta hain adin txikiko

neskatoekin lan egiteko», kontatu du adituak.

Ziberdelituek ere gora egin dute. Hiztegia gero eta zabalgagoa da: Sexpreadinga, Sex-tortzioa, Groominga, Cibers-talkinga, Cyberflashinga, Pornomendekua, Packsa, Slut shaminga, Happy Slappinga, Deep nudesa...

Eskatu gabeko zakilen argazkiak jasotzea; mendekuz emakume baten argazkia webgune batean zintzilikatzea; adimen artifizialaren bidez biluztutako argazkiak sortu eta zabaltzea –nerabeen artean gero eta ohikoagoa... indarkeria matxista ederki ari da teknologia eta garai berrien zirrikituetan sartzen.

Datuek berez hitz egiten dute: ziberdelituen biktimak





gero eta gehiago dira. %86 emakumezkoak eta %14 gizonezkoak. Biktima diren gizonezkoak 0-13 urte bitartean izaten dira zaurgarrien. Gizonezkoak nerabegarora iristen direnean eta adin nagusiko bihurtzen direnean, normalean arrisku faktoreak izateari uzten diote. Salatzen diren ziberdelituen %84 adin txiki-koen artean gertatzen dira. «Prebentzioa lantzea oso garrantzitsua da lehen eta bigarren hezkuntzan. Lehen hezkuntzan dagoeneko ikusten ari gara ziberdelituak», gaineratu du Ruiz Repullok.

Erasotzaileen artean, berriaz, erradiografia kontrakoa da. %93 gizonezkoak dira eta %7 emakumezkoak. Eta gizonezkoen artean ziberdelituak

egiten dituztenen artean adin txikikoak gero eta gehiago dira.

## Bortxaketaren kultura

«Garrantzitsua da indarkeria matxista estatu mailako arazo dela barneratzea. Hiltzen, bortxatzen eta erasotzen ari dira. Politizatu egin behar da gertatzen ari dena, Estatu arazo bat da», nabarmendu du soziologoak.

Horretan lan izugarria egin du feminismoak azken hamarkadatan. «Zer egin nahi dute zenbait ahots misoginok eta politikaren mutur jakinek? Anekdotikora bueltatu. Emakume bat erasotzen edo bortxatzen dutenean arazo anekdotiko baten aurrean gaudela sinetsarazi nahi digute, ez bageunde bezala egiturazko arazo baten aurrean. Egiturazko arazoa da eta horregatik da hain zaila horri aurre egitea. Kulturaren dago, harremanak izateko moduetan, publizitatean, komentarioetan. Bortxaketaren kulturaren dago. Kultura hori da edozein eraso gertatzeko bidea ematen duena».

Bortxaketaren kultura hori nonahikoa da. Erakunde mailan ematen da, «ez dituztenean baliabide nahikoa eskaintzen eta erasoak gertatzen direnean errua biktimaren gainean jartzen dutenean.

Edo erasotzaileak justifikatzen saiatzen direnean».

Maila mikroan ere ematen da, «bortxaketaren kulturaren estereotipoak elikatzen jarraitzen dugunean: 'jantzi-ta doan bezala, gutxi pasatzen zaio'. 'Ez badu nahi ezer pasatzea, ez dadila joan ezagutu berri duen gizonezko batekin'. Komentario horiek hor daude oraindik».

Ruiz Repulloren esanean, bortxaketaren kulturak emakumeengan beldurra sortzen du umetatik. «Emakume gehienak sexualitatea beldurretik eta tentutik bizitzeko sozializatzen dituzte umetatik. 'Kontuz ibili' oso umetatik entzun dudana aholkua izan da. Ez nekien zer esan nahi zuen, baina ikasi dut sexualitatearekin zerikusia zuela. 'Kontuz ibili' erremin-ta patriarkal bat da. Toki bazu-tuetatik ez pasatzeko esaten dizute, ezezagunekin ez hitz egiteko, ez ibiltzeko bakarrik... Eta zerbait gertatuz gero, mezua garbia da: 'Ez duzu konturik izan eta gertatu zai-zuna gertatu zaizu'. Hor errua dago. Erruak biktimen errelatoa isilarazten du, eta erasotzailea zigorgabe utzi».

## Mitoak deseraiki


Indarkeria sexistari buruzko mitoak deseraikitzea izan daiteke bortxaketaren kultura zulatzen hasteko bide bat.

«Indarkeria sexista bortxaketarekin edo sarketarekin lotzen jarraitzen dugu, eta ez du horrela izan behar. Kaleko sexu jazarpenera eta ziberjazarpenera delitu bezala identifikatuta daude dagoeneko. Baimenduta ez dagoen guztia eraso sexuala da eta ez du zertan sarketarik egon».

Beste mito bat: indarkeria sexuala gertaera zehatza da eta bizitzan behin gertatzen zaigu. «Indarkeria matxista egiturazkoa da, bikotearen barruan gerta daiteke, eta baita haurtzaroen ere. Ez da gertaera puntuala, egiturazkoa da eta osasunean sekulara eragina dauka».

Erasotzailea erotizatzea edo munstro bihurtzea. Beste mito bat. «Badirudi erasotzaileak aberatsak, ezagunak edo guapoak direnean, askoz zailagoa dela ulertzea eraso egin dutela eta biktimaren errelatoa zalantzan jartzen da. Aldiz, erasotzaileak migratzaileak, itsusiak edo po-break direnean, errazago sinisten da».

Bada biktimak unibertsalitzatzeko joera ere; edozein eraso sexista jasan duten biktima guztiek eraso hori modu berean bizi dutela pentsatzea. «Emakumei esaten zaie bizitza honetan gerta dakiekeen gauzarik okerrera eraso sexista bat jasatea dela. Eraso egiten badigute, dagoeneko pasa zaigu bizitza honetako



gauzarik okerrena. Emakumeak erabakiko du hori ote den gertatu zaion okerrena edo ez. Biktimei utzi behar diegu haiek baloratu dezaten gertatu zaiena. Horrek eramango gaitu biktimaren erabateko sendaketara», ñabartu du soziologoak.

Askotan entzun izan da honakoa: «Nahiago dut putana naizela esatea, biktima naizela esatea baino». Bizipen hori ez pizteko biktimaren sendatzeko eta aurre egiteko gaitasunean sinistu beharra dago. «Erantzun biktimizatzaileak, 'gaixoa' modukoak, ekiditea garrantzitsua da. Garrantzitsua da biktimari aurrera egiteko gaitasuna aitortzea eta espazio seguruak sortzea horretarako. Biktima biktimizatzen badugu, epaitu eta ebaluatu erasoaren ondoren egin duenagatik, esan duenagatik, jantzi duenagatik... biktima askok ez dute traje hori nahi izango. Biktimaren kontzeptuak bizirau-learen kontzeptuaren parean joan behar du», esan du soziologoak.

## Pornosozializazioa

Indarkeria matxista jendartetik erauzteko, ezinbestekoa da sexu heziketa. Horretan bat datoz ahots aditu gehienak. Aldiz, errealtateak dio nerabeak

eta gazteak pornosozializazio prozesu bortitza sufritzen ari direla. «Neskatoak eta mutikoak modu desberdinean hezten dituen testuingurua da. Bada egitura estu horietatik ateratzen den jendea, baina agindu patriarkala horra bueltatzea da», azaldu du Carmen Ruiz Repullo.

Zer egiten du pornosozializazioak? «Neskatoak, oso umetatik, sexualitatea ustiatu beharreko elementu bezala ulertzea bultzatzen ditu. Neskatoei mezu garbia helarazten zaie: zure balio estetikoak, fisikoa eta sexuala da. Kapital erotikoa esaten zaio».

Sare sozialen dinamika maltzur horretan, onak eta txarrak bereizten dira. Sareetan zintzilikatzen duzunaren arabera, toki batean edo bestean kokatuko zaituzte.

«Balio handiko emakumea da birjina dena. Esperientzia sexual ugari izan dituen ez da baliagarria ez harremanak izateko ezta ezkontzeko ere. Hori da zabalitzen ari den mezua».

Mutikoen kasuan, pornosozializazioak bestelako mezua ematen die. «Ez die esaten sexualitatea ustiatu beharreko zerbait denik, baizik eta besteen aurrean erakutsi beharreko zerbait. Erakutsi batez ere norbaitek zalantzan jartzen duenean. 'Ez dago potrorik' formula ezaguna da. Badira ezetz esaten duten mutilak, ez dutela hau edo bestea egingo esaten dutenak, horiek ezinbestekoak dira. Erreferentziazko gizonak dira. Baina normalean oso zaila da. Institutuetan tailerrak ematen ditudanean konturatzten naiz erreferentziazkoak diren mutikoak gizontasunaren rola betetzen dituztenak direla ia beti».

Gizontasunaren rol horretan aldaketak izan dira. Baina exigentzia sexualak hor jarraitzen du. «Gizontasuna erakutsi beharra. Hori oso presente dago».

Errelato misoginoaren ondorioz, pornografia hezkuntza sexual bezala finkatu da. «Ikerketek esaten dute gizona porno grafia gehiago kontsumitzen du-

Parekidetasunean aurrera egindako urratsak gogor erasotzen dira manosferan, feminismoarekin haserre dauden gizonaek elkar topatzen duten sareko espazioan.  
GETTY IMAGES

tela eta goizago hasten direla; hasteko adina 8-12 urte bitartean dago. Umetatik neskatoei eta mutikoei ez badiezu sexu hezkuntza eskaintzen, pornografiara iristen direnean pentsatuko dute hori dela normala».

Gazteen artean egindako galdeketa batek honako ondorioa jarri du mahai gainean: gaur egun sexu harremanetan normalak dira honako praktikak; listua bota, zaplaztekoak eman, iraindu eta urkatu.


«Praktika horien normalizazioa izugarria da. Sexualitatean dena balekoa da parte hartzen duten pertsona guztiek desio dutena egiten badute. Desioa bada, baimena dago. Baina ez badago desiorik, indarkeria sexuala da».

Hala ere, Carmen Ruiz Repullo soziologoaren ustez, «pornografia bere horretan ez da eraso sexualen erruduna; sistema patriarkalak eta eraso egiten duenak daukate erantzukizuna. Baina egia da pornografia, *mainstream* pornoa, emakumeen gaineko, LGTBI kolektiboaren gaineko eta migratzaileen gaineko indarkeria erotizatzen ari dela. Hau gertatzen ari da».

Eta, amaitzeko, «sexualitatea beti plazera da. Plazera ez dena ez da sexualitatea eta indarkeria izena du».



# LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia  
BALLESTEROS

iRRITZIA: {





**M**ugarri” begirada bat da, mugaren leku zehatz batetik luzatutakoa. Bertan kontatzen diren istorioak joandako garai batekoak dira, baina gure gaurkotasunarekin estuki lotuta daude. “Mugarri” milaka eta milaka pertsona bizitzen ari diren dramaren isla da, ez soilik aipatzen duen mugan, baizik eta munduaren luze-zabalean dauden hainbat mugatan.

Halaxe definitu du Jokai konpainiaren lan berria Jabier Leoz Aristu zuzendari, ekoizle eta musikariak. Ibardingo mugan gertatzen diren bi istorio dira kontzertu didaktiko honen hari gidaria. Herriaren ondare immaterialaren parte diren esperientzia horiek berreskuratuz, balioan jarri eta zabaltzea du xede.

Idea duela urte eta erdi baino gehiago sortu zitzaion.

## «MUGARRI»

### Musika eta antzerkia, mugaz gaindiko harremanak estutu eta aberasteko

📁 KULTURA / Maider IANTZI GOIENETXE

Jokai konpainiaren proiektu berria da «Mugarri». Musika du oinarri –txalaparta, danborrak, eta baita biolina, biolontxelo, gitarra eta ahotsa ere–, eta antzerkiaz balliatzen da Ibardingo mugan gertatzen diren bi istorio kontatzeko, munduaren luze-zabalean dauden hainbat mugatan milaka lagun bizitzen ari diren dramaren isla. Gaur zortzi izanen da estreinaldia, Beran, 18.30ean.

Jon Artola Urrutia eta biek osatzen dute Jokai. «Jon berratarra da, eta berari esker, mugako inguru batean bizitzeak egunerokoan jendeari ekartzen dizkion arazoak ezagutzeaz gain, bertako biztanleen talentu artistiko handiaz jabetu naiz», adierazi du Lekunberri bizi den iruindarrak. «Bi faktoreek arreta handia ematen zidaten.

Horrez gain, Fermin Balentziaren ‘La Pastora de Ibardin’ kantua 50 urte betetzen dituela ohartu nintzen. Elementu horien guztien baturak norabide bat ematen zidan nora joan nahi nuen jakiteko».

«Beti izan dugu argi gisa honetako proiektu bat gauzatu nahi genuela, baina egun-

daino ez zen momentu ona. Behin Larhongo instalazio parte-hartzailea egonkortuta zegoelarik, abentura berri bati ekiteko baldintzak zeudela pentsatu genuen».

Beren premisa eta helburu nagusia beti izan da egitasmo on bat gauzatzen saiatzea, gustuz eta maitasunez, eta beren ideiak eta ilusioak ukigarri eginez aitzinera eramatea.

Bertze xede bat bolok egitea da, oinak lurrean beti, emanaldiak lortzeko zailtasunez jakitun izanik, baina ahalgintzeko eta ikasten eta eboluzionatzen jarraitzeko gogo izugarriarekin.

#### SORTZE PROZESUA

“Mugarri”-k musika tradizionaleko hainbat elementu –harrizko eta egurrezko txalaparta, errate baterako– bertze mota bateko instrumentuekin elkartzen ditu –biolina, biolontxelo, gitarra eta ahotsak–. Sortzeko prozesua ez da erraza izan. «Jonek Dani Irazokirekin jarri ninduen harremanetan. Berako artista da, Larhongo Kaiola benta darama, aldi berean, eta bertan Kabia kultur espazioa dute. Berarekin hasi ginen lehen pausoak ematen; anitz lagundu zigun».

Proiektuaren oinarria garbi zuten, Ipar Euskal Herriko musikari eta artistekin sortu nahi zuten emanaldia. Bilaketa ez zen batere erraza izan, ordea. Pasatzen zizkieten kontaktuak musikari hagitzen onenak ziren, baina haiek ez zuten egitasmo berri bat hasteko denborarik.

«Azkenean, Julen Lezaun ezagutu genuen. Iruñeko artista bat da, Izturitzen bizi dena. Proiektuaren gakoetako bat izan da. Ideia gustatu zitzaion, eta lanari ekin zion, bai sorkuntzan eta bai inguruko musikarien bilaketan».





Proiektuaren eboluzioari dagokionez, hilabeteak igaro ahala ontzen joan da. «Ez genuen presarik, ongi egin nahi genuen, mimoz. Lehenbizi musikaren alderdian zentratu ginen, kontatu nahi genituen istorioak bilatzen, eta gero eszenara pasatu ginen, antzerkiaren arlora».

#### IBARDINGO BI ISTORIO

Musikaren hari gidaria Ibardingo mugan gertatzen diren bi istoriok osatzen dute, bi begiradak. Bata Maria artzainarena da. Mendi gaineko borda batean bizi da eta bertan zaintzen ditu ardiak. Urte latzak tokatu zaizkio: 1936ko Gerra, gerraondoa eta Bigarren Mundu Gerra. Bere alabarena da bigarren begirada, Kontxirena. Borda benta bilakatuko du. Ez dira garai samurrak berarentzat ere. Gaur egun muga espazio bati buruz hartzen diren erabaki politikoen ondorioak jasaten ditu egunerokoan, bere herrikideek bezala.

«Mugarri» obrako lantaldearen bi irudi. Bakarka, txalapartaren makilak eskuetan, Jabier Leoz, proiektuko zuzendaria, ekoizlea eta musikaria.

Ricardo BOSCH

**«Mugan bizitzeak jendeari ekartzen dizkion arazoak ezagutzeaz gain, bertako biztanleen talentu artistiko handiaz jabetu naiz. Bi faktoreek arreta handia ematen zidaten»**

**Julen Lezaun artista iruindarra Izturitzen bizi da. Proiektuaren gakoetako bat izan da. Ideia gustatu, eta lanari ekin zion, bai sorkuntzan eta bai inguruko musikarien bilaketan**

Testua aurtengo udan idatzi zuen Leozek, behin istorioa zein begiradetatik edota pertsonaietatik kontatu nahi zuten definitu zutelarik. Testua «hagitz modu naturalean» atera zitzaion. Tere Sarriguren obrako aktorearekin kontrastatu zuen, testua maitatu zuen eta bere ikuspegia eman zien. Ideiak gehitu zituen bai gairen baten inguruan eta bai taularatzean, obra aberastuz.

«Mugarri» publiko guztientzako kontzertu didaktiko bat da, ordu bat eta hamar minutu irauten du eta, aretora bide-

ratuta badago ere, kanpoan ere egin daiteke baldintza egokiak izanez gero. Beran izanena da estreinaldia, gaur zortzi, azaroaren 30ean, 18.30ean kultur etxean.

Momentuz obraren ekoizpenarekin eta zabalpenarekin ari dira Jokaikoak buru-belarri. Behin estreinaldia eginda, banaketan zentratuko dira.

Hala azaldu dituzte Jon Artola eta Jabier Leozek beren desioak: «Lan anitz egin nahiko genuke, eta ilusioz beteta gaude. Obra jakin-min handia pizten ari da eta bai herritarrek eta bai sektoreko profesionalak anitz animatzen gaituzte. Gero, denbora solastatuko da, eta gauzak bere lekuan jarriko ditu».

#### PUNTAKO MUSIKARIAK

Artista ugariren agendak bateratu behar dituzte helburu handiko proiektu hau aitzinera ateratzeko. Alde batetik, Jokaiko konpainiako bikotea dago. Bertzetik, Julen Lezaun, Maita-

ne Urbizu, Sergio Lamuedra, Eñaut Zubizarreta eta Cecilia Moreno musikariak. Tere Sarriguren aktorea ere bai.

Koordinazioa konplexua da. «Musikari bakoitza Euskal Herriko txoko batekoa da, bakoitzak bere egitasmoak ditu, kontziliazio familiarra eta pertsonala... denak daude lanpetuta. Hortaz, entsegu bakoitzak ahalegin handia eskatzen du». Bertzalde, «gozarena» da maila altuko musikariekin lan egitea, «ez soilik teknikoki, baita pertsona bezala ere. Hori zuzendari gisa anitz eskertzen da», baloratu du Leozek.

Zuzendari eta ekoizle izateaz gain, txalaparta jotzen du. «Hagitz asebeteta nago emaitzarekin, eta oraindik badugu hobetzeko tartea, denbora pasa ahala ikuskizuna ontzen eta eboluzionatzen joanen baita. Ongi funtzionatzen ez duena zuzenduko dugu, eta obraren alderdi indartsuak sendotu».

Kontratazioa jokai.eus webgunearen bidez egin daiteke.



**Eñaut ZEBERIO BERAKOETXEA**  
Psikologian graduatua

## Faxismoa eta haren oinarri psikologikoak



**F**axismoa ez da soilik erregimen politiko bat; krisian zegoenean eta sozialismoaren gorakadaren mehatxuari aurre egiteko kapitalismoak sortutako

erantzun autoritarioa baizik. Kontrol soziala bermatzeko, errepresioa eta manipulazio ideologikoa erabili zituen, langile klasearen kontzientzia eta elkartasuna deseginez. Erregimen faxistek autoritatearen eta obedienciaaren psikologia erabili zuten boterea sendotzeko, eta Stanley Milgramen esperimentu ospetsuek erakutsi zuten nola gehienek autoritatearen aginduak jarraitzen dituzten, nahiz eta moralki edo psikologikoki deseroso sentitu. Autoritateak kaosaren eta ziurgabetasunaren aurrean segurtasun ilusioa eskaintzen zuen, eta jendeak lider autoritario bat bilatzen zuen, nahiz eta haren ekintzak beren balioak kontraesaneari jarri.

Solomon Asch-en adostasunari buruzko ikerketek, bestalde, agerian utzi zuten nola gizarte-presioak norbanakoak iritzia aldatzera bultzatzen zituen. Faxismoak nazioaren batasun "ilusorioa" sortu zuen, non kritika egitea gizarte-bazterketa ekarriz zigortua zegoen. Batasun nazionalako mezuen bidez, autozentsura areagotzen zuen, eta zalantzan jarri gabe, taldearen irizpideak jarraitzen ziren. Manipulazio honen ondorioz, kolektibotasunaren babesean, norbanakoek beren konbikzioak alde batera uzten zituzten, identitate nazionalari lehentasuna emateko.

**Faxismoak langile klasearen arreta euren zapalkuntzatik desbideratzeko estrategia argia zuen.** Marxismoaren ikuspegitik, langileek kontzientzia iraultzailea garatu behar dute kapitalismoaren aurka egiteko. Hala ere, fa-



Garrantzitsua da klase kontzientzia iraultzailea sustatzea. PIXABAY

xismoak etsaien irudi faltsuak sortu zituen (juduak, komunistak edo besbelako talde "arriskutsuak"), eta horrela, jendearen frustrazioa eta haserrea desbideratu zituen. Jendeari benetako etsai ekonomikoak identifikatu ordez, beste talde zapaldu batzuk demonizatzen bultzatu zuen jendea, kapitalismoaren egitura ustiatzaileak indarrean mantenduz.

Beldurra faxismoaren arma garrantzitsu bat izan zen. Etsai errealak edo asmatutakoak erabiliz, beldurrak gizartea polarizatu eta lider autoritario batengan babesa bilatzera bultzatzen zuen. Beldur eta mesfidantza giro batean, elkartasuna ahuldu egiten zen, eta gizartea zatitu eta erraz kontrola zitekeen. Faxismoak, mehatxuak etengabe gogoraraziz, populazioa alerta egoeran mantentzen zuen.

**Gaur egungo testuinguruan, agerikoa da krisi kapitalistaren testuinguru-**

**pean hartzen diren neurri eta tendentzia autoritarioak eta faxismoak erabilitako kontrol eta manipulazio tresnak oraindik ere erabiltzen direla.** Egungo botere-egiturek beldurra, propaganda eta kontrol kulturalak erabiltzen dituzte. Joseph Goebbels-ek esan zuen moduan, «gezur bat nahikoa alditan errepikatzen baduzu, egia bihurtzen da». Faxismo modernoak desinformazioa eta emozioen manipulazioa ustiatzen ditu, jendea kontrol ekonomiko eta politikoetara alienatuz.

Faxismoaren azterketa, iraganetik ikasteko ez ezik, baliagarria da egungo arriskuei aurre egiteko ere. Botere-egiturek obediencia eta adostasun dinamikak ustiatzen jarraitzen dute, eta garrantzitsua da klase kontzientzia iraultzailea sustatzea, basakeria kapitalistaren forma ezberdinei aurre egiteko eta gizarte bidezkoago bat sortzeko. •



{ koaderno } **Xabier IZAGA**

# Indarkeria desberdinak eta biktima desberdinoak

**A**stehenean, Santi Brouarden eta Josu Muguruzaren hilketen urteurrena baino egun bi lehenago, ETaren eta segurtasun indarren bortizkeriaren biktimak gogoan izateko eskultura multzo bat inauguratu zuen Bilboko Udalak, Atalase izenekoa. Plaka batean, Bilboko biktima horietako askoren izenak agertzen dira, nahastu gabe, heriotza horien eragilearen arabera sailkatuta. Segurtasun indarrek egindako hilketen izenak jaso dituen atalean, baina, ez da ageri Iñigo Cabacasena. Atal horretatik kanpo bai, ordea, «behar beste argitu ez diren» heriotzen artean. Cabacasen heriotza argi samar dagoela dirudi, besterik da behar beste edo behar bezala ikertu ez eta harengatik inor ez zigortu izana.

Plaka horrek akats eta hutsune gehiago ditu, Egia-ri Zor fundazioak eta Etxebarrieta memoria elkarteak salatu duten bezala. Esate baterako, Mikel Martinez de Murgiaren izena ez da inon ageri, ez dakigu behar besteko argipen falta edo inorentzat iraingarri izateko arriskua dela eta. Edonola ere, Guardia Zibilaren biktima da eta horrela dago modu ofizialean aitortuta.

Astehenean bertan, Gasteizko Gobernuak Justizia Sailak jakinarazi zuen kartzelatan kultur emanaldiak egiteko baldintzak zorrotzkoak dituela, joan den larunbatean Martuteneko kartzelan "Sarri, Sarri" abesti *supermegaezaguna* entzun zutela jakin ondoren. Hala izan zen, egileak berak kantatu zuen, abestiak kontatzen duen ihesaldia gertatu zen presondegi berean. Justizia Saileko bozeramaileak esan zuenez, aurrerantzean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako espetxeetako edozein kultur ekintza egiteko artistei edo jardungo duten taldeei «errespetu eta balioekiko konpromiso bat» eskatuko diete, eta ezingo dituzte biktimak iraindu.

Zer balioz ari dira? Sailburuaren balioez? Haren alderdiarenez? PSEko buruzagi eta EAEko lehendakari ohiak dantzaten zuen abestia ezingo dute presoek dantzatu? Justizia sailburuak orain aspaldi ez dela esan zuen nekatu gabe eskatuko diela ETako presoek «egindako krimenak beren gain hartu eta egindako min bidegabea onartzeko», hala nola «justiziarekin kolaboratu dezatela». Zigorraz gainera, bere kontaktuzuna onartzeko, alegia.

Biktimak iraintzerik ez onartzea zentzuzkoa da, nola ez, ba, orain eta beti. Hala ere, biktima batzuk preso bat kartzelatik irteteak mindu ditzake, eta hori ez da iraintzat hartzerik. Zenbait biktima, halaber, bestelako biktimak euren aldamenean (mailan) agertzeak ere mindu ditzake. Eta hori ondo kontuan hartzen du-

Zenbait biktima bestelako biktimak euren aldamenean (mailan) agertzeak ere mindu ditzake. Eta hori ondo kontuan hartzen dute erakundeek, beste biktima asko etengabe baztertu eta mespretxatuz

te erakundeek, beste biktima asko etengabe baztertu eta mespretxatuz.

Bilboko plakaren goiburukoa bera esanguratsua da: "Bilbon izan diren terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guztien oroimenez". Terrorismoa indarkeria da, baina indarkeria ez da baitezpada terrorismoa; horregatik egin dute, nonbait, indarkeria bien arteko bereizketa. Indarkeria motak erabakitzen du biktimaren maila; edo, hobeto esanda, egileak. Hala ere, gustura jakingo nuke (egia esateko, badakit) zer indarkeria motak eragiten zuen (duen) ikara handiagoa, terroristak omen zenak edo terrorista ez omen denak. •



{ analisia } **Mikel URDANGARIN IRASTORZA**

## Luciana Cadahia: «Ez gara libre jaiotzen, libre egiten gara»

**A**mesgaiztoko mundu bat totalizatu eta horretaz bakarrik hitz egingo dugu?

Edo beste gizarte-lotura batzuk sortzen ari diren bizitzen esperientzia "afirmatibo" horiek guztiak berreraikitze ahalegin intelektuala ere egingo dugu?». Galdera eta erron-

Cadahiarentzat, «munduaren errepresentazioak disputan daude» eta askatasunaren kontzeptua da giltzarrietako bat: besteekiko edo besteekin askatu, hor dago kokxa.

ka hori plazaratu zituen Luciana Cadahia (Buenos Aires, 1982) filosofoak Iruñeko Balaruarte Jauregian.

Duela aste batzuk egin zuen hori, ehunka pertsonen aurrean, "Iruñeko Topaketak" ekimenaren barnean. Orduz geroztik amesgaizto ugari bilakatu dira errealitate: trikornio berdeak Green Capitalen eta Iruñean bertan, indarkeria matxista kasuak, DANak dena suntsitu, Trumpen garaipenarekin mundua are gehiago "trumpatu"... Aitzitik, Cadahiak aldarrikatu zuenez, ez dago zertan esperientziok totalizatu. Osotasun horretan badaude esperantzarako printza eta arrakalak ere, «existentziari eta bizitzari beste forma bat ematen diotenak».

Nola pentsatu eta zabaldu horiek? "Forma erreakzionario berriak, emantzipazio forma berriak" izenburupean, Luciana Cadahia hori pentsatzen saiatu zen bere hitzaldian.

Bulkada zahar-berriak Cadahiak azaldu zuenez, gure garaia bi bulkada nagusiren arteko talkak ezaugarritzen du: «Emantzipazioaren bulkada, "afirmatiboa", bizitza, bizimoduak eta gizarte loturak modu jakin batean eraikitzen dituen; eta aurrean, erreakzioaren bulkada, baiezkoa izan beharrean, errektiboa





Luciana Cadahia hitzaldia ematen, mukuru betetako Baluarte Jauregiko aretoan. Sekulako gaitasun erretorikoa erakutsi zuen. Idoloia ZABALETA | FOKU

dena». Lehenengoa bulkada komunitarioa da, bizitza bere aniztasunean baieztatu eta zabaltzen duena; bigarrena, berriz, immunitarioa da, norbera baieztatzeke besteak ukatzen dituena.

Argentinarentzat, “neo-” eta “post-” garaia izanik, jorok berriak dira, baina, «era berean, oso zaharrak dira». XX. mendeko 20ko hamarkada begiztatuz gero, esaterako, egun gertatzen ari diren fenomeno ugariarekin «familia airea» suma daiteke: izurriak, gerrak... Orduan bezalaxe, liberalismoa krisian dago gaur, eta indar erreagionario zein emantzipatzaileak noranzkoa lehiatzen ari dira.

Mende oso bat ez da alferrik pasatu, ordea. Funtsezkoa da hiru indar historikorien (liberala, faxista eta emantzipatzailea) analisi gaurkotua egitea.

## Merkatu-demokrazia

Cadahiaren ustez, (neo)liberalismoaren egungo krisia ulertzeko Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean Iparralde Globalean nagusitu zen errelatoa ulertu behar da.

Errelato horren arabera, behin faxismoa garaituta, «behingoz posible izango zen demokraziaren eta merkatu librearen artean aliantza egitea. Hau da, merkatu libreko

demokrazia eraikitzea». Mundu libre merkaturarekin berdinduta, “iraganeko” gatazka eta ideologiak albo batera utzi eta “etorkizunerantz” jotzeko apustua egiten zuten. Berlingo Harresia eroritakoan, indartu egin zen esperantza hori: Fukuyamak aldarrikatu zuenez, “historia amaitu da”, aurrerapean ez zuen atzera bueltarik.

Demokrazia eta merkatu libre elkartzean, demokraziaren eta libertatearen kontzeptuak berrasmatu egin zituzten. Demokrazia askatasunarekin berdindu zuten, berdintasunaren printzipioa ahaztuta. Askatasuna, berriz, «esku hartzerik eza balitz bezala hasi zen pentsatzen. Hau da, ni aske naiz, baldin eta ezerk eta inork ez badu nigan esku hartzen. Askatasuna, or-

duan, nik nahi dudana egin ahal izatea da, hori eragotziko didan inolako araurik egon gabe». Hala, askatasuna norbanakora eta merkatura murriztu zuten: «Aske izatea, funtsean, kontsumitzeko aukera izatea zen: produktuak, esperientziak...». Esan nahi baita, merkaturako askatasuna izatea.

Behin hala definituta, berdintasuna, ahaztu ez ezik, askatasunarentzako (eta ondorioz, demokraziarentzako) mehatxu gisa jo zuten: autoritarismo, homogeneizazio eta totalitarismoaren ernamaina omen zen. Horri lotuta, estatua eta bestelako instituzioak ere susmagarritzat jo zituzten. Neoliberalismoaren ideologoentzat, estatua eta burokrazia bere horretan txarrak ziren eta murriztu egin behar ziren, enpresei eta norbanakoei «askatasun gehiago bermatzeko».

Ondorioz, merkatu libreko demokrazian, merkatuaren (edo hobeto esanda, merkataritari handien) askatasunean zetzan demokrazia. Merkatu-demokrazia zen, ez demokrazia merkatuarekin.

## Aliantzaren etena

Cadahiaren iritziz, su haietatik datoz ke hauek. Izan ere, horrek «maila ezberdinetako demokraziak» ekarri zituen:

«Gutxi batzuk oso ondo bizi zitezkeen milioika eta milioika pertsonaren sufrimenduen kontura». Hasteko, Iparralde Globalean errelato hori barreiatzen zen bitartean, Uruguai, Txile, Bolivia edota Argentinan diktadura zibiko-militarren bidez ezarri zen “Chicago Boys”-en programa. Segitzeko, herritarren artean ere ezberdintasunak nabarmenak ziren.

Alabaina, Europako estatu askotan lortu zen ongizate egiturak eta politika berdinezaleak bultzatzea. Garaiko borrokak eta indar harremnak zirela medio, zerbitzu publikoak edota lan eskubide batzuk lortu eta zabaldu ziren. Hala, demokraziak merkatuak eragindako ezberdintasunak zertxobait berdintzea lortu zuen, sektore zabalei ongizate maila jakin bat bermatuz.

Cadahiak azaldu zuenez, baina, 2008ko krisiak «Europaren sudakizazioa» ekarri du. Latinoamerikan 70 eta 80ko hamarkadatan ezarritako politikak Europan orduan hasi ziren ezartzen: pribatizazioak, murrizketak... estatuak «geroz eta gehiago neoliberalizatzen hasi ziren», dimentsio soziala ahulduz eta autoritarioa indartzuz.

Horren ondorioz, desberdintasunak biderkatzeaz gain, merkatu librearen eta



demokraziaren arteko aliantzaren errelatoa pitzatu egin da: demokrazia merkatuaren askatasunarentzat traba bilakatu denez, ahalik eta gehien husten eta boteregabetzen saiatu dira. Hots, desdemokratizatzen.

### Erantzun neofaxista

Cadahiarentzat, neofaxismoa ez da merkatu-demokraziaren kanpo mehatxua, baizik eta banaketa hori bururaino eramateko saiakera. Ezberdintasunak are gehiago handitu eta «logika señoriala» ezartzea da xedea: «Jauntxoak eta jopuak, ez nebarrebak, ez berdintasunezko itun bat, baizik eta jendea goian eta jendea behean, jen-

dea menderatzen eta jendea menderatuta».

Horretarako, batetik, askatasunaren ulerkeraren neoliberelean sakondu nahi dute. Adiera honen arabera, askatasuna botere pertsonal mugagabea izatea da, «besteekiko nagusi izatea». Zentzu horretan, heziketa sexualaren, «genero ideologiaren» edota esku hartze ekonomikoen aurrean «askatasuna» aldarrikatzen dute; alegia, esparru horietan gehiago izan ahal izatea, inork mugarik ezarri gabe.

Bestetik, hala egin ahal izateko, demokraziari esplizituki aurre egiten diote, haien tzentz demokrazia funtsean kolektibismoa eta komunismoa baita: «Joan den mendean berdintasunaren nozioa

**Cadahlia bere irakurketa xehatzen. Munduaren ikuspegi «unilateralak» alboratu eta jada martxan dauden esperientzia askatzaileetan arreta jartzeko deia egin zuen.**  
Idoia ZABALETA | FOKU

askatasunaren nozioak ordezkatu bazuen eta askatasunaren eta demokraziaren arteko lotura ezarri bazen, gaur egun askatasunak, edo hobeto esanda, askatasunaren nozio neofaxistak, jada ez du demokraziaren nozioa ere behar». Horren lekuko, Bukelek El Salvadorren, Mileik Argentinan edo Trumpek AEBetan, demokrazia egiazko askatasunerako «traba» gisa ezaugarritzen dute. Ayusoren leloak dioen bezala, ataka argia da: komunismoa/demokrazia edo askatasuna.

Hortaz, neofaxismoak merkatu librearen eta demokraziaren arteko aliantza behin betiko haustea planteatzen du: Iparralde globalean orain arte merkatari handien libertatea

demokraziaren izenean legitimatzen bazen, neofaxistek horren aurka zabaldu nahi dute.

### Emantzipaziorantz

Horren aurrean, zer egin? Cadahiarentzat, ez dago zertan autoritarismoaren eta neofaxismoaren ikerketa eta salaketara mugatu. «Munduaren errepresentazioak disputan daude», eta bestelako mundu bat marrazten duten esperientziei ere arreta eskaini behar zaie. Adibidez, Internazional Erreakzionarioaren oldarraldia egon badago, bai, baina baita Nazioarteko Matxinada Feminista ere; Trumpek hauteskundeak irabazi ditu, jakina, baina hamarkadako ezinaren ostean Kolonbian eta Mexikon ezkerrek gobernuan egotea lortu du azken urteetan, nahiz eta apenas aztertu eta ospatu dugun.

Indar emantzipatzaile hauen kasuan, askatasuna berdintasunari eta demokraziari kontrajarri beharrean, uztartzen saiatzen da: «Demokraziaren papera bere gain hartzen du, bazterrezina den zerbait bezala. Hau da, faxismoek demokrazia arbuatzen badute eta neoliberalismoak demokraziaren bertsio urardotua eskaintzen badu, indar horiek berdintasunaren aldarria berreskuratze eta askatasunaren nozioa zentzu neoliberalaz oso



bestelakoan indartzeko apustua egiten dute».

Izan ere, askatasuna ez da esku hartzerik eza: «Ez gara libre jaiotzen, libre egiten gara. Ez gara aske inork nigan esku hartzen ez duen heinean, zeren eta, inork ez banau zaintzen, inork ez banau babes-ten... azken batean, inork ez badu nigan esku hartzen, erabateko bakardade eta tristura dira nagusi. Kontrara, bestekin batera askatasuna eraiki ahal izateko, esku hartze asko behar ditugu gure bizitzetan». Bakarka ezin denez, «askatasunaren baldintza materialak kolektiboki eraiki behar dira».

Bide horretan, analisi hotez gain, «pasio alaien» beharra azpimarratzen du argentinarrak. Ohartarazten duenez, neofaxistek «arterik, filosofiarik, soziologiarik, literaturarik eta, finean, humanitaterik gabeko mundu bat irudikatzen dute». Horren aurrean, garrantzitsua da kulturaren eskutik irudimena lantzea. Tokian tokitik, «auzoetako oinarritzko lanetik instituzio desberdinak irudikatzea».

Kolonbiako adibideak azaldu ondoren, Cadahiak baikortasunez amaitu zuen hitzartzea: «Bizitza hobeak eraiki daitezke, dagoeneko egin dugulako eta egin ahal izango dugulako». Ondoren jasotako esku-zartek iradokitzen zuten, ez da hori sine-tsi nahi duen bakarra.

## EMANTZIPAZIORAKO ERREMINTA KONTZEPTUALAK

Luciana Cadahia oso pentsalari iradokitzalea da. Latinoamerikan kokatuta, eta populismoaren, errepublikanismoaren eta feminismoaren iturrietatik edanda, proposamen originalak egin ditu «Siete ensayos sobre el populismo», «La Republica de los cuidados» eta beste hainbat liburutan. Bere pasarte batzuk ekarri ditugu orriotara, Euskal Herrirako ere interesgarriak direlakoan.

### Abertzaletasunaz

Bada abertzaletasuna balio ilustratuen aurkakotzat jotzen duenik. Cadahiak, kontrara, abertzaletasuna ilustrazioaren muinean kokatzen du, adiera askatzaile bat emanez: «Garrantzitsua da ohartaraztea hemen [Iraultza Frantsesean] 'abertzale' hitzari emandako erabilerak ez zuela zerikusirik gaur egun termino hori lotzen dugun zentzu atzerakoiarekin. Hemen 'aberri' hitzak gaur egun goikoen eta behekoen arteko bereizketa bezala ulertzen dugunari egiten zion erreferentzia. Aristokratek beren odol-loturen bidez mundua era menderatzailean egituratu izana salatzen erabiltzen zen bereizketa hori». Testuinguru horretan, «aberriak elkartasunezko gizakiak biltzen zituen; hau da, nazioarteko loturak menderakuntzaren logikatik

kanpo eraikitzen zituzten gizakiek. Aristokraziak nagusitasun domestikoaren bidez antolatutako mundu bat irudikatu bazuen, aberri sentimendutik posible izango zen gizaki askeen mundu bat irudikatzea, askatasunaren eta berdintasunaren elkartasunezko sentimenduek elkartuta».

### Populismoaz

Populismoa bere horretan txartzat jotzen da maiz: manipulazioa, sinplekeria... Horren aurrean, populismoa ikuspegi emantzipatzaile batetik pentsatzeko gonbita egiten du Cadahiak: «Populismoa demokraziaren kontrakoa delako baieztapena demokraziaren nozio mugatu bat onartzen dugunean bakarrik gertatzen da, demokrazia adostasunezko prozedura formaletara murriztu eta edozein motatako herri-gatazketatik aldentzean. Gure garaiko zailtasun handienetako bat ikuskera hori nagusitu eta demokrazia hitzaren jatorrizko zentzua ahaztea da: herriaren boterea. Herri aktibo baten irudia, iruditegi demokratiko garaikidetik desagertzeaz gain, askotan demokraziarentzako mehatxu gisa ezaugarritzen da. Demokrazia mota honen aldekoek esan ohi dutenaren kontra, esan genezake populismoa dela herri ahaldundu baten figura bizirik mantentzen

duen esperientzia politiko bakarrenetako. Horregatik, populismoa antidemokratikoa dela esan beharrean, demokraziaren dimentsio eratzalea berpizten duen aztertu beharko litzateke».

### Publiko eta pribatuaz

Honakoa ohiko eztabaida izaten da Euskal Herrian. Cadahiak honela planteatzen du: «Publikoa estatala denarekin berdintzen duen ikuspegi estatista okerra da. Era berean, hanka-sartzea da pribatua indibiduo bakartuen ekimen askearekin identifikatzea. Gogora dezagun pribatua adjektiboa latinezko 'privare' aditzetik datorrela, hau da, zerbait pribatu, gabetu edo kentzetik. Zentzu horretan, ondasun publiko eta pribatuen arteko bereizketa egiten dugunean, ez gara bi polo baliokideei erreferentzia egiten ari, lapurreta ariketa bati baizik: pribatua komunitate pribatu edo ostu zaigun guztia da». Horren aurrean, «publikoa dena ikuspegi feministatik pentsatzen dugunean, 'res publikoa' beste modu batera lantzeko aukera berpizten ari gara. Kontua ez da estatuaren eta herri eremuen artean eztabaida faltsu bat ezartzea, baizik eta gure estatuak neoliberalismoaren atzaparretatik askatzea eta erabilera komun batera itzultzea: herrien erabilera dialektiko batera».

## Leka egin berrien usaina

**Itzea URKIZU  
ARSUAGA**

**P**uska txikitan ebaki ditut osagai guztiak, ura, olio eta gatzabota, eta martxan jarri dut presio-eltzea, muturra noiz igoko zaion itxaroteko. Eta leihotik begira jarri naiz bitartean.

Goizean goiz maitale izan duen argiak pareko leihoak berotzen ditu orain. Bosgarreneko amonak bere egongelako begiratokia hartu du besaulki, eta eguzkiari bizkarra emanda goxatu ditu bere artilezko jertsea eta gorputza, kristalean.

Hunkitu egin nau irudiak, bizitzearkerk izan behar lukeen erakutsi didalako amona horrek, hitzik egin gabe. Moteltasun epel horretara batu nahi-

ko nuke, bere leiho hegian eseri, eguzkiak bizkarra berotzen digun bitartean, bizitzak pilatu dion jakintzatik hitz egin diezadan.

Dei batek jaitsarazi nau laino idealizatu horretatik. Spam dei horietako bat zen, banketxearen izenean, ez dudana kopuru bat berehala eta baldintza perfektuetan izan dezakedala esanez, eta telefonoz eta arrapaladan inork gutxiak barnera ditzakeen letra-txikidun ohartarazpenak zerrendatuz.

Duda egin dut: beste batzuetan bezalala, eskaini behar didana ez zaidala baxterez interesatzen tinko azaldu eta deia ahalik eta azkarren moztu, ala telefo-

noaren bestaldean nire antzeko bizitza bat izan lezakeen pertsona bat dagoela pentsatu, eta esatea tokatzen zaion hori esaten utzi.

Bigarrena aukeratu dut, eta hogeita hamar segundoan azaldu diot esker-tzen diodala, baina une honetan ez dudala halako ezer behar. «Eskerrik asko entzuteagatik» batekin eten du deia, eta pareko leihora egin didate berriz begiek. Hara, hasi da eltzea txistuka; usain honetan egingo nuke etxe bat.

Akaso, bizitzak egon beharko luke gertuago leka egin berrien usainaz eta beste zenbait egunerokotasun poetikoz gozatzen ikastetik. •

## Uholdeak gure burmuinetan

**U**rriaren 29an valentziar herrialdean gertaturiko hondamendiak gaur arteko oihartzuna izan du medioetan.

Eta are gehiago esango nuke, leku guztietan: kaleko elkarrizketetan, lanekoetan, sare sozialetan, familia kideekin izandako telefono deietan... “Dana” okupatu du gure bizitzetan. Hasieran, tragedia komentatzeko, eta ondoren, *self service*; gobernu kritikatzeko, aldaketa klimatologikoak hitz egiteko, uholdeek ekarri zuten herriaren elkartasun uholdeaz hitz egiteko...

Telebista piztuz gero ez dugu besterik izan, eta berriz ere izutzen nau *mass media*-k duen botereak horrelakoetan. Nahi izanez gero ez duzu besterik ikus-

ten, ez entzuten, eta zure iritzia ere marioneten moduan moldatzen da. Ikusleriak nortasun eta kriterio handirik ez badu, uraren indarraren irudi horietan joango da bere ikuspegia ere.

Ez da hondamendi bakarra izan zoritarrez, eta izugarri gustatuko litzaidake elkartasun uholde hori hara ere iritsiko balitz. Kuban jazotakoaz ari naiz zehazki. Urriaren 29tik gaur arteko tarte txikian, bi urakan eta bi lurrikara pairatu dituzte irlan. Askok ziur ez garelako enteratu, eta ez dut inor errudun egin nahi. Baina bai, han ere oso egoera larrian daude, laguntza handia behar dute. Gobernuaren hitzetan ez dago hildakorik, baina bai kalte material handiak. Honi gehitu azken urteetako inflazio eta blokeo itogarria, ja-

nari falta, ur falta eta energia falta. Eta kezkarriena, ilusio falta.

Baina hau dena ez dugu medioetan ikusiko, ez dute nahi. Soilik Kuba guztiz “anikilatuko” duten egunean bonbardatuko gaituzte 24 orduz, lehen munduak komunismoaren diktadoreekin amaitu dugula ospatzeko. Lehen mundu hori, non 200 hildakotik gora izan diren gaizki ku-deatutako eurite batzuekin. Kuban, aldiz, bat ere ez, gauza materialen gainetik; ton-takeria politikotik haratago, jendea jartzen baitute beti beste guztiaren gainetik.

Eta bai, badakit, horrela jarrita, tamalez egunero munduko txoko askotan dute elkartasunaren beharra, etxetik hasita urrutira joan gabe. Baina esan beharra nuen. •

**Miren AZKARATE  
BADIOLA**

# IRRINTZIEN HARROBIA

## Ausartzeko teknikak landu dituzte Aulestin, transmisioa eten ez dadin

📁 KULTURA / Nerea GOTI

**B**ariku arratsaldea da Aulestin. Laster hasiko da iluntzen eta oso jende gutxi dago kalean. Haurrekin dagoen guraso talde txiki bat dago herriko plazan. Liburutegiaren irekieraren zain daude gaztetxo bi; Irrintzi Topaketen hasierari itxaroten beste lagun batzuk, berandua go jakin genuenez. Plaza horretan bertan, udal bulegoak hartzen dituen eraikinean dago herriko liburutegia, eta solairu batzuk gorago, ekitaldia hartuko duen udal aretoa. Ehun lagun ingururentzako jarlekuak dituen areto txiki bat da, eszenatokia, argiztapena eta soinu ekipoak dituena.

Bertan dira Irrintzi Topaketak, gutxitan ikusten den hitzordu horietako bat, bitxia, ez baitira oso ohikoak irrintziari eskainitako deialdiak. Jakingura piztuta, beraz, Aulestira joan da GAUR8, topaketa horien nondik norakoak bertatik bertara jarraitzea, eta tradizioaren transmisioetik harago joan den esperientzia bat aurkitu du. Era xume batean, belaunaldi berriei irakatsi die eta komunikazio tresna zaharraren erroetaraino joan da jarduera; "Erraiak" dokumentalaren proiektioaren bidez irrintziaren inguruan dauden sentimendu, testuinguru eta esanahi eta adierazpen ezberdinen azterketaraino. Izan ere, gaur egun jaiarekin lotzen dugu irrintzia, baina nabarmendu dutenez, guda, haserre, inpotentzia edota mina izan daitezke sorburu eta testuinguru.

Sorpresaz hartu dute prentsaren presentzia. «Ekitaldi xume bat izango da, irrintziak botatzeko ikastaroa egingo da lehenik, eta ondoren, 'Erraiak' irrintziari buruzko dokumen-

Euskal identitatearekin estuki lotuta, berezko ezau-garriak dituen irrintziaren inguruko topaketak egin berri dituzte Aulestin. Irrintziak botatzeko teknikak erakutsi dituzte herriko hiru irrintziaren eskutik, belaunaldien arteko transmisioa elikatuz eta egile berrien harrobia handituz.

tala emitituko da», aipatu du Eli Azpiazu Aulestiko kultura zinegotziak, ekitaldiaren xumetasuna azpimarratuz, eta hau guztia zelan sortu zen galdetuta, kontatu du Ainara Ituiñoren proposamena izan zela «irrintziari bultzadatxo bat ematea». «Horri heldu eta udaletik lagundu dugu gauzatzeko», gaineratu du.

Aulestin, irrintzi lehiaketa egiten dute Santa Eufemi jaie-

tan, baina irrintziaren presentzia herrian data horietara mugatzen dela diote. Horren aurrean, asmoa zen interesa izan zezakeen herritar gehiagorengana zabaldu, hurrengo belaunaldiei transmititu eta irrintziari «lekua eta segida ematea», azaldu du.

Bide horretan, eskolaren bidez ume guztien etxeetara helarazi zen hitzorduaren gaineko informazioa, eta «edozein

adinetako norbanakoei ere egin zitzaien gonbita», zehaztu du. Ez dugu oraindik esan, baina aulestiarrek dira ekimean "irakasle" gisa parte hartzen duten hiru irrintzilariak: Nerea Agirre, Lorea Zarragoikoetxea eta Ainara Ituiño.

Korro batean jarrita hasi dira lehen azalpenak. Gorputzaren jarrerak duen garrantzia azaldu du Ituiñok: «Aurrera begira, paparra kanpora» azaldu die txikienei. Arnasketa da kontuan hartu beharreko bigarren urratsa, ez baita erraza.

Aipatu du Ituiñok bakoitzak era batera egiten duela eta, batzuek bularrarekin hartzen dutela, baina sabelean gordetzen dutela airea beste batzuek, biek... Bakoitzari errazen egiten zaiona erabiltzea da aholkua, eta eskua buruan jartzea go mendatzen du, irrintzia sentitzeko. Praktikara eraman dute

Irudian, Aulestiko Udalak antolatutako irrintzi ikastaroa.  
Marisol RAMIREZ | FOKU





azaldutako hori, zaharretik adin txikienera, hiru irrintzilarien laguntzarekin.

Hirurak daude korroan, azalpen bat edo beste ematen, eta aurrean, hamar haur eta lau heldu inguruk hartzen dute parte ikastaroan. Ez diote barre egiteari utzi. Ez da oso egoera arrunta helduak eta haurrak batera ikasle aritzea, ezta herriko lagun aurrean lehen irrintzi bat bota behar izatea ere. Saihestezina den gonbidatu ikusezin handi bat dago korroaren erdian, lotsa, irrintzilarien etsai nagusia dena, ahots guztien arabera. Irrintziak izan behar duen egitura ere azaldu dute Agirrek, Ituiñok eta Zarragoikoetxeak. Azalpenen arabera, arnasketa zabal batekin abiatzen da irrintzia, eta arnasketa horren barruko bultzada batekin hasten da doinua. Oihua denbo-

### **Ausartzeko teknika eta aholkuak eman dituzte irrintzilariak: ordu erdiko saioa arnasaldia kontrolatzen irakasteko non lotsa kentzea da bota beharreko harresi handiena**

### **Irrintzien transmisioan laguntzeaz gain, publikoki irrintziak botatzen jende gehiago animatzea da heburua, testuingurua edozein dela kultura gori gorde dadin**

ran eustea da gakoetako bat, baita amaiera bat ematea ere, era ezberdinetakoa izan daitekeena, baina irrintziak amaiera behar du, nabarmendutakoaren arabera.

Eztarria berotzeko ariketa kolektiboak egin dituzte, denek batera, dezibelen markak hautsiz; eta banaka, irrintzilari gisa estreinaldia eginez. Txikien eta helduen ahaleginak txalotu dituzte, publikoaren

aurrean ez baita erraza izatea askatzea eta irrintzika hastea. Gaitasun hori ere eginez entrenatzen dela diote. Horregatik, laguntzeko nahian edo, bizkarra emanez hasi dira lagunak irrintziak botatzen.

Panderoaren doinuak lagunduta egin dute beste erronda bat, eta hobetzen joan dira, irrintzilari txikiak batez ere. Ikastaroari amaiera emateko, udaletxeko leihoak zabaldu eta kanpora bideratu dute ikasitakoa, ekimenaren helburua bera betez, irrintzilari berriei plazarako bidea erakutsiz.

Agirrek, Ituiñok eta Zarragoikoetxeak ez zuten irrintziak botatzeko ikastarorik izan. Batzuek etxean zuten ikusita, eta era naturalean jarraitu zuten ama-amamaren ohitura; beste batzuentzat katea izan da eskola, gogoia eta nahia. «Botatzen ikasten da

eta bota ahala gero eta hobeto egiten duzu», dio Agirrek.

Lehen esperientzia horretaz ari garela, topaketa jarraitzen ibili den Ane Uriartek kontatu du etxean urte zaharrenean botatzeko ohitura dutela. Urte batean argia joan zen urteko azken gauean, aitzak irratia piztu eta 12 kanpai-hotsak katilu batekin jo zituen, eta era espontaneo batean hasi omen ziren irrintzika ama, ahizpa eta hirurak, bata bestearen atzetik. Orduetik, irrintziak botatz ematen diote ongietorria urte berriari. Kontakizun hori sortu da, eta erantzun sorta bat izan du irrintziak botatzen diren testuinguruaren inguruko galderak: jaiak, erromeriak, lagun artekoak... aipatu dira nagusiki, eta basoa agertu da, puntu berezia omen duelako mendian irrintzia botatzeak.

#### **BAT-BATEKOA BAINA EZ EDONOLAKOA**

Inprobisazio ukitu handi bat dauka irrintziak, barrutik sortzen den hori, doinua, tinbrea... aldatzen dira, baina egitura finko bat gorde du. «Irrintzi baten egiturak hasiera bat dauka, tarteko doinu bat, eta azkena. Doinu horrek tinbre ezberdinak izan ditzake, bira asko egin ahal dira, baina jarraitua izan behar du, ezin da moztu eta berriro hasi. Eta gero, amaiera da inportanteenetarikoak, zeren irrintzia oso polita eta luzea izan arren, azkenean behera egiten badu, ez bada mantentzen edo gorantz egiten badu, hor galdu egiten da», azaldu du Nerea Agirrek. Nabarmendu duenez, irrintziak «doinua, potentzia, tinbre polita eta azken puntu potente hori izan behar ditu».

Aulestiko topaketa hauek bezalako ekimenek duten garrantziaren inguruan galdetuta, hiru aulestiarrak deialdiaren

Lehen irrintziak entseatzeko Aulestin, elkarri bizkarra emanda.  
Marisol RAMIREZ | FOKU



helburuekin bat etorri dira eta nabarmendu dute irrintzilari berriak behar direla. Ekitaldiok garrantzitsuak dira herrian irrintzilariak beti pertsona berdinak izan ez daitezzen, eta tradizioaren transmisiorako duten balioa azpimarratu du Agirrek. «Garrantzitsuak dira ez galtzeko gure identitatearen parte den hori, ez dakigu noiztik datorren hizkuntza hori... Hori gal ez dadin eta bere horretan segida izan dezan, eta batez ere, txikienek ikus dezaten eurek ere bota dezaketela».

Irrintziak emakumezkoen kontua diren ere komentatu dugu parte hartzaileekin. Diotenez, gaur egun emakume irrintzilari gehiago dagoela ematen du, edo gehiago animatzen dira akaso publikoki botatzen, baina gizonak ere botatzen dituztela adierazi dute. Izan ere, aipatu dute antzian ohikoagoa zela gizonzkoen artean, eta historiak artzainen arteko komunikazioan kokatzen ditu oihu zaharren erroetako batzuk.

Ikastaro batekin abiatu zen Irrintzi Topaketa, eta irrintziaren jatorri, esanahi eta erroetara egin zuen bidaia ondoren, helduentzako bigarren parte batekin, "Erraiak" dokumentalarekin; hamarnaka irrintzilariaren parte hartzea duen Ekain Martinez de Lizarduy Stürtzen lana da.

Izenburuak berak dioen bezala, irrintziaren erraietara bidaiatzen duen ikus-entzunezkoak gogoeta eta interpretazio ezberdinak biltzen ditu 30 minutuko iraupena duen lanean. Izan ere, irrintzi baten inguruko neurketa eta haren analisi morfologikoa jasotzen ditu dokumentalak, harmonikoen morfologia eta sopranoen maila gaindi dezakeen frekuentzia altua azpimarratuz.



Aulestiko topaketan entzundako gogoeten ildo beretik, lanak jaso du nortasunarekin lotutako zerbaite delat irrintzia, elkarrizketa izan daitekeela, baita bizipoza adierazten duen zerbaite ere, edota, haserretik bota daitekeena. Lanak bildutako lekukotasun batek heriotzaren testuinguruan botatako irrintziak aipatzen ditu. Udal areto nagusian bildutako ikusleen artean, Nekane Akarregi ondarroarra dago, irrin-

Ezkerretik eskuinera, Nerea Agirre, Ainara Ituiño eta Lorea Zarragoikoetxea irrintzilari aulestiarak.  
Marisol RAMIREZ | FOKU

**‘Erraiak’ dokumentalaren proiektzioaren harira, belaunaldiz belaunaldi honaino heldu zen oihu zaharrak gorde duen egitura zehatza azpimarratu dute topaketetan**

**«Berdin dio Azkoiti, Lazkao, Ondarroa edo Etxarrikoa izateak, denok daukagu argi zelan bota behar den, arnasa bakarra izan behar dela eta amaitu egin behar dela» adierazi dute**

tzilari eta dokumentalean bertan parte hartzen duen ahotssetako bat. Aipatu dio GAUR8ri gertuko pertsona baten hiletaren testuinguruan entzundako irrintzi bat dagoela ikus-entzunezko horren abiapuntuan. Bildutakoentzantiganzen arabera, tristezia ere egon daiteke irrintzia botatze-eraman gaitzaketen sentimenduen artean, edota une horretako espiritualitatearekin lotutako zerbaite. Ituiñok azpimarratu du barne-barne-terik atera eta «gauza asko transmititu daitezkeela» irrintzi baten bidez. Gogoratu du horrelako momentu bat bizi izan zuela aitaren heriotzan: «Handi-handi bat bota nion joaten laguntzeko».

Transmisioren begira, nabarmendu du Akarregik, Euskal Herri osoko irrintzilariak biltzen dituen lanak erakusten duenez, egitura zehatz bat gor-

detzen du. «Irrintziaren kasuan, transmisio bat egon da, eta berdin dio Azkoiti, Lazkao, Ondarroa edo Etxarrikoa izateak... denok daukagu argi zelan bota behar den, arnasa bakarra izan behar dela eta amaitu egin behar dela. Sahararrenak ez dira amaitzen, eta tonua ere ez da gurea bezain altua, baxuagoa da. Horrek esaten du zein ondo egin dugun transmisioa, guztiok egin dugu arnasa bakarra, eta bide horretan tonua gora edo behera joan daiteke, luzeagoa edo motzagoa izan, baina modu bat segitu dugu denok».

Lehen irrintzi topaketak izan dira Aulestin, eta datorren urtean «beharbada beste formatu batean jarraitu» ahal izango dute «irrintziari, ‘ijui-xe’ Aulestin, garrantzia eman eta ezkutuko irrintzilari gehiagorengana heltzen», adierazi du Azpiatzuk.





## Edurne LARRAZA MENDILUZE

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

# Informatikari Euskaldunen Bilkura (IEB): ikasleen ekarpenak

**U**EU, Udako Euskal Unibertsitateak urte asko daramatza Euskal Unibertsitaterako bidea egiten. Hasieran udako ikastaroen bidez, eta urteen poderioz eta gaur egun, graduondoko, jardunaldi eta unibertsitate mailako etengabeko formakuntzarekin ere bai. Horregatik, garrantzitsua da profesional euskaldunek haren ezagutza izatea.

Informatikariontzat, Informatikari Euskaldunen Bilkura (IEB) da UEUK bi urtean behin antolatzen duen ekitaldi nagusietako bat. Euskaraz sortutako tresna eta aurrerapen informatikoak aurkezteko espazioa. Aurten, XIII. edizioa izan dugu, Adimen Artifizial (AA) sortzailea ekarri nahi izan dugu mahai gainera, egitarau ederrarekin. Hala ere, azken urteotan gazte jende gutxi gerturatzeko zela ikusita, aurtengo edizioan Gradu eta Master Amaierako Lanak (GrAL/MAL) aurkezteko deialdi berezia egin da. Deialdi arrakastatsuak lanbide heziketako lanen bat ere erakarri du, eta Informatikaren etorkizuna agerian utzi du.

Aurkeztutako lanen artean, informatika gizarte-arazoen konponbiderako tresna boteretsua dela nabarmendu da. Pentsaera Konputazionala (PK) Kimikan eta jolasen bidez landu daitekeela ikusi ahal izan dugu, eta PK programazioaren bidez landu nahi izanez gero, konputagailurik gabe egin daitekeela, bloke bidezko programazio analogikoa-

rekin eta ondoren Adimen Artifizialaren (AA) laguntzarekin programa digitalizatuz.

Bestalde, sare sozialetan suizidioaren zantzuak aurreikusten saiatu diren bi lan ere aurkeztu dira. Batek suizidioarekin lotutako ezaugarri morfologiko eta lexikoak identifikatu ditu, eta besteak, mezu horiek laburrak eta akatsdunak izanik, identifikazioak fidagarriagoak izan daitezten, eraikitako tresnak datu eta trebakuntza gehiago behar dituela azpimarratu du. Bloke honetako azken lanak familiartekoei Alzheimer edo dementzia duten pertsonen telefono-deiak hartu ezin dituztenean

robot batek elkarrizketan laguntzea bideratu du.

**Ondoren, hizkuntza-ereduen blokea heldu da, euskarazko eredueta arreta jarriz.** Lan horien artean, hizkuntza-ereduak entrenatzeko erabiltzen diren datu eta algoritmoek duten alborapena aztertzen duena; euskarazko C1 azterketaren ebaluatzaile automatiko bat sortu duena, baina muturreko azterketak ongi ebaluatuta ere tartekoentzako hobekuntzak behar dituen; euskarazko akats gramatikalen zuzenketarako ereduak eta ebaluazio-datu multzo berriak garatu dituen; Euskal Herriari buruzko ezagutza zuzena sortzen laguntzeko hizkuntza-ereduen hobekuntza aztertu eta oraindik mugak topatu dituen; hizkuntza-ereduek gezurrak esateko duten joera aztertzeko euskarazko marko bat garatu duena.

Azken bi lanek AAREN funtzionalitate zabalagoak aztertu dituzte. Bata, espazio fisikoa eta objektuen arteko harremanak ulertzeko hizkuntza-ereduen ebaluazioa burutzen duena, eta bestea, neurona-sareen arkitektura optimoen bilaketa egiten duena, hobekuntzarik lortu gabe.

Ikasle askok azpimarratu dute hizkuntza-ereduak garapen azkarrean daudela eta zenbait lan zaharkituta geratu direla jada, baina arlo berean ikertzen jarraitzeko asmoa erakutsi dute hainbatek, eta laster lan hauen ondorengoak ezagutu ahal izango ditugu IEBn zein IkerGazten.



Informatikari Euskaldunen Bilkuran parte hartu zuten ikasleak. UTZITAKOIA



# BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



## INDALECIO OJANGUREN, 1929AN, KIRIKIÑO ETA CARLOS ELGUEZUAREKIN

Indalecio Ojanguren (1887/1972), "Fotografo Aguila" izenez ezaguna, Eibarko mendizalea izan zen, Euskal Herriko hainbat tontorretara igo zena. Lurraldean zehar egin zituen bidaia eta joan-etorrietan, makina bat argazki, baserri, eliza, ezkutu, paisaia ezezagun, herrien eta jaien ikuspegi eta pertsonaien erretratu hartu zituen kamerarekin. Ojangurenak bonbardaketa frankistek Euskal Herriko hainbat herritan izandako ondorioak ere dokumentatu zituen. Hala ere, bere irudirik ezagunenak eta argitaratuenak "Bilboko Burdin Hesikoak" dira. Bere garaiko beste argazkilari batzuek bezala, gerraostean errepresaliak jasan zituen, eta horrek bere lanbidean jardun ezinik egotera behartu zuen denbora batez. Prentsan egindako ekarpenez gain, bere argazkiak Pio Barojaren "Pais Vasco" eta beste lan batzuetan argitaratu zituen. 1926an, Gasteizen egin zen Eusko Ikaskuntzaren IV. Kongresuan, argazkigintzan egindako lanagatik saritu zuten. 1929an hartutako irudian, argazkiaren ezker aldean ageri da, Kirikiño idazle, kazetari eta euskaltzainaren eta Carlos Elguezua eskultore eibartarraren aldamenean.



**GABONAK 2024 GARA**ko komunitatearentzako eskaintza berezia

# Kataluniako kalitatezko cavak

## Bi Brut de Brut Maria Casanovas cava botilako sorta

Elaborazio tradizionala / %100 Ekoizpen ekologikoa



**Zure hurbilekoei  
oparitzeko ere aparta**

Adierazi eskaeran eta  
etxera eramango diegu

Kutxatila dotore batean aurkeztua  
**Aurten, tapoi hermetiko bat opari!**

**GARA**

**SORTA BAT**  
(bidalketa-gastuak aparte)

**22,95**  
euro

Eskaintza berezia  
**BI SORTA**  
(bidalketa-gastuak aparte)

**42**  
euro

**ESKAERAK EGITEKO:**

**Harpidedunek:** Mezu elektronikoari erantzunez • **Naiz Denda:** [denda.naiz.eus](http://denda.naiz.eus) • **Arreta Zerbitzua:** 943 31 69 99

